

INKLUSIOA LANTZEA IKASKUNTZA ZERBITZUAREN BIDEZ:

Hezkidetzeta eta ikaskuntza zerbitzua

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Alvarez Nagore, Izaskun.

ZUZENDARIA: López Vélez, Ana Luisa.

2021

Laburpena:

Emakume eta gizonen arteko parekidetasuna lortzea gizarte osoaren erronka da, baita hezkuntza formalarena ere. Hori dela eta, Gradu Amaierako honetan ikaskuntza-zerbitzuaz baliatuz, Gasteizko ikastetxe publiko bateko 5. mailako ikasleen artean ematen diren sexuen araberrako desberdintasunezko jarrerak eta jokabideak identifikatu nahi izan dira, proposaturiko saio ezberdinen bidez ideia horiek bertan behera utzi ahal izateko. Horretarako, hezkidetzaren eta hautatutako metodologiaren azterketa sakonak egin dira, gero emaitzekin alderatu ahal izateko. Emaitzei dagokienez, hezkuntza formalean oraindik lana egin behar dela ondoriozta daiteke txikitatik sexu-aniztasun, identitate edota orientazio sexuala bezalako gaiak tabuzat ez hartzeko.

Hitz gakoak: Inklusioa, hezkidetzeta, interseksionalitatea, ikaskuntza-zerbitzua, eskola.

Resumen:

La igualdad entre mujeres y hombres es un reto para toda la sociedad y **también para la educación formal. Por ello, aprovechando** el aprendizaje-servicio como metodología, mediante este Trabajo de Fin de Grado, se ha querido identificar las actitudes y comportamientos desiguales por sexos que se dan entre el alumnado **de 5º de un centro público de Vitoria-Gasteiz**, con el **fin de que a través de diferentes sesiones propuestas se puedan eliminar estas ideas**. Para ello se ha investigado sobre la **coeducación y la metodología** seleccionada, que permiten su posterior contraste con los resultados **obtenidos. En cuanto a los resultados, se puede concluir que todavía hay que trabajar en la educación formal para que los niños y niñas no tengan como tabú temas como la diversidad sexual, la identidad o la orientación sexual.**

Palabras clave: Inclusión, coeducación, interseccionalidad, aprendizaje-servicio, escuela.

Aurkibidea

1. Sarrera.....	4
2. Justifikazioa	5
3. Helburuak.....	5
4. Marko teorikoa	6
4.1. Eskola inklusiboa	6
4.2. Hezkidetza.....	7
4.2.1. Gaur egungo egoera.....	7
4.2.2. Zer da hezkidetza?.....	8
4.2.3. Intersekzionalitatea.....	10
4.2.4. Hezkuntza sailak hezkidetzarekiko duen ikuspuntua EAEn.....	11
4.3. Ikaskuntza-zerbitzua.....	15
4.3.1. Zer da ikaskuntza zerbitzua?	15
4.3.2. Nola jakin ikaskuntza zerbitzua den ala ez?.....	16
4.3.3. Ikaskuntza zerbitzua martxan jartzeko aldeko arrazoiak	17
4.3.4. Ikaskuntza zerbitzuaren bidezko ekintzak martxan jartzea	18
5. Testuingurua eta zerbitzuaren proposamena.....	20
5.1. Eskolaren testuingurua	20
5.2. Eskolarekin harremana.....	20
5.3. Gelaren azterketa	21
5.4. Proposamena.....	22
6. Metodoa.....	28
7. Emaidzak	30
7.1. Aukeratutako gaia	30
7.2. Harreman motak.....	31
7.3. Planifikazioa	32
7.4. Ikasleen erantzuna.....	33

7.5. Faktore oztopatzaileak	36
7.6. Ikasleen balorazioa	37
8. Ondorioak.....	38
9. Bibliografia.....	41
10. Eranskinak	45
10.1. ERANSKINA: <i>Familien baimen-gutuna</i>	45
10.2. ERANSKINA: <i>Etiketak lantzen- Genero estereotipoak</i>	46
10.3. ERANSKINA: <i>Etiketak lantzen- Hausnarketarako momentua</i>	47
10.4. ERANSKINA: <i>Nor da nor?- "El vestido nuevo"</i>	49
10.5. ERANSKINA: <i>Nor da nor?-Kontzeptu batzuk ikasten</i>	51
10.6. ERANSKINA: <i>Ebaluazio fitxa</i>	54
10.7. ERANSKINA: <i>Ekintzen egutegia</i>	56

1. Sarrera

Instituto Nacional de **Estadísticak ateratako datuek** Espainian emakumeek gizonek baino %23 gutxiago kobratzen dutela aipatzen dute (**Rodríguez eta Alonso**, 2018). Honetaz gain, EAEn emakumeen kirol-albisteei eskainitako denbora %3,7 da eta gizonezkoen eskainitakoa %96,3 (Emakunde, 2012). Hau da, bi adibide garbi hauetan gure gizarteak bermatzen duen emakume eta gizonen arteko desparekidetasuna argi ikusten da. Are gehiago, indarkeria matxistak Espainian 2020. urtean 45 emakume erail dituela ikus daiteke (Genero Indarkeriaren Aurkako Gobernu Ordezkaritza, 2021). Arazo larri honi aurre egiteko, hezkuntza formalak sexu berdintasuna bultzatzen duen heziketa baten alde egin beharko luke.

Hori dela eta, Gradu Amaierako Lan honetan eskola inklusibo bat lortzeko hezkidetzaren aldeko hezkuntza sustatu nahi da. Kasu honetan, hau aurrera eramanez ahal izateko, ikaskuntza-zerbitzuaren bidez egin da. Horretarako, marko teorikoan hezkidetzaren azterketa sakona egiteaz gain, eta EAE-ko hezkuntza sistemak esaten duena aztertzeaz gain, ikaskuntza-zerbitzua zertan datzan ikertu egin da, gero gai honen inguruko zerbitzu bat proposatu ahal izateko.

Ikaskuntza zerbitzua erkidegoko behar bati erantzuna ematen saiatzen denez, Gasteiz hiriko ikastetxe publiko bateko gabezia bati erantzuna ematean oinarritu da GRAL-aren zerbitzua, eskolan sexuen arteko errespetuan gabezia nabarmentzen baita. Hau kontuan izanda, behin ikastetxearen beharrak aztertuta, eskolako 5. mailako gela bakoitzean bost saio aurrera eramanez, sexu berdintasuna, sexu aniztasuna, identitatea eta orientazioa landuz. Saio hauen bidez, ikasleek barneratuta dituzten emakumeen zein gizoneen egokituriko rol sexistak, balioak edo jarrerak identifikatu nahi izan dira, ondoren deuseztatu ahal izateko.

Bukatzeko, emaitzetan ikusi ahal izan den moduan, ikasleek gai honen inguruan oinarritzko ideiak izan arren, modu teoriko batean jorratu egin dituzte beti, eta ondorioz, jokabide sexistak erreproduzitzen dituzte. Gainera, hezkuntza formalak oraindik tabutzat hartzen ditu hezkidetzak defendatzen dituen ideia eta gai asko, eta ondorioz, desberdintasunak areagotzen dira.

2. Justifikazioa

GRAL honen bidez, inklusioa landu egingo da ikaskuntza-zerbitzuaren bidez, hezkidetzan fokua jarritz. Izan ere, alde batetik, hezkidetzaren lantzea beharrezkoa da, gaur egun bizi garen sistema patriarkal honek umeei balore eta ezaugarri matxistak helarazten dizkielako eta ondorioz, emakumeen aurkako diskriminazioa txikitatik bermatzen da. Hori dela eta, hezkidetzaren aldeko hezkuntza sistema bat lortu behar da, non generotik haratago joaten garen eta non emakumeei zein gizonei egokituriko rol sexistak, balioak edo jarrerak deuseztatzen diren.

Beste aldetik, GRAL-a ikaskuntza zerbitzuaren bidez aurrera eramatea oso aberasgarria dela iruditzen zait. Izan ere, ikaskuntza-prozesuaren protagonistak ikasten duen heinean, bere inguruneko edo erkidegoko beharren bat asetzeko zerbitzua egin dezake. Halaber, metodologia honi esker ikaskuntza aktibo eta esanguratsua lortu egiten da eta gainera, zerbitzuak ikaskuntzari zentzua ematen dio; nire ikuspuntutik ezinbestekoa dena. Are gehiago, ikaskuntza zerbitzuak protagonista gizartearen eraldatze prozesuaren parte izatera eramaten du, hausnarketarako eta pentsamendu kritikorako gaitasuna sustatuz.

Hau dena kontuan izanik, esperientzian oinarritutako ikaskuntza sustatu egiten duen metodologiaren eta erkidegoa laguntzeko eta sare berriak sortzeko metodologiaren alde nago. Ondorioz, nire ikuspuntutik, gaur egungo ikastetxeetan nabaritzen den premietako bat genero desberdintasunekin bukatzea dela kontuan izanda, nire proposamenaren bidez ikastetxe bati zerbitzua egin diot, eskolan sexuen arteko errespetuan gabezia nabarmentzen delako. Behin zerbitzu hori prestatuta, ikastetxe publiko batean praktikan jarri da eta eguneroko batez eta landa oharretaz baliatuz, prozesuei buruzko datuak jaso egin ditut, modu honetan zerbitzuaren emaitzak aztertu ahal izateko.

3. Helburuak

Hona hemen Gradu Amaierako Lan honen helburu nagusiak:

1. Hezkidetzaren zer den ikertzea eta hezkuntzaren zer eragin duen aztertzea.
2. Ikaskuntza-zerbitzua zer den aztertzea eta metodologia honetan oinarrituta proposamen bat aurrera eramatea ikastetxe batean.

3. Hezkidetzan oinarritutako hezkuntza bultzatzea, ikaskuntza-zerbitzuaren bidez.
4. Ikasleen artean ematen diren sexuen araberako desberdintasunezko jarrerak eta jokabideak identifikatzea.

4. Marko teorikoa

4.1. Eskola inklusiboa

Eskola inklusiboa gaur egun indar handia hartu duen terminoa da. Izan ere, gutxinaka eskola integratzailea ordez, eskola inklusiboa bultzatzen da. Ideia hau defendatzearen arrazoi edo helburu nagusia Echeitak eta Sandoval-ek (2002) dioten moduan, gizartean existitzen diren jarrera eta prozesu baztertzaileak geldiaraztea da. Are gehiago, jarrera baztertzaile hauek direla eta, hiritar askoren berdintasunerako eskubidea deuseztatu egiten da eta ondorioz, gaur egungo gizartearen kohesioa kolokan jartzen da.

Hortaz, hezkuntza inklusiboa hezkuntza-sistema batek komunitateko ikasle guztiengana iristeko duen gaitasuna indartzeko prozesutzat har daiteke. Hau kontuan izanda, inklusioa hezkuntza-politika eta praktika guztiak gidatu behar dituen printzipio orokorra da, hezkuntza oinarritzko giza eskubidea dela eta gizarte bidezkoago baterako oinarria dela defendatuz (IBE-UNESCO, 2016).

Ildo beretik, 2015eko irailaren 15ean, Nazio Batuen Biltzar Nagusiak onetsi egin zuen Garapen Iraunkorrari buruzko 2030 agenda. Agenda honek hamazazpi helburu unibertsal ezartzen ditu 2030erako. Hezkuntza zentro askok, EHU barne, helburu hauen bidez garapen iraunkorra, inklusioa eta gizarte konpromisoa sustatzen duen erakunde bihurtu nahi dira. Halaber, ikasleen artean lankidetzeta, berdintasuna, pentsamendu kritikoa, sormena eta gizarte konpromisoa bultzatzea lortu nahi da, herritar gisa prestakuntza integrala jaso dezaten (EHU, 2019).

Hezkuntza inklusiboaren helburu nagusia ikasle guztien garapen maila handiena bilatzea eta lortzea da, bakoitzaren ezaugarriak edozein direla ere. Honek ez ditu soilik ikasleak eta banakako ezaugarriak kontuan hartzen (generoa, jatorria, gaitasuna, kultura, erlijioa, ama-hizkuntza, sexu-identitatea eta abar), ikasleak bizi diren lekua, haien ikastetxe-mota eta ikastetxe horren **ezaugarriak ere kontuan hartzen ditu (López-Vélez, 2018).**

Eskola inklusiboek haur guztiak batera hezteko baldintza dute eta baldintza hau norbanakoen arteko desberdintasunei erantzungo dieten irakaskuntza moduak garatzean datza (IBE-UNESCO, 2016). Hau da, eskolek haur guztiei mesede egingo dieten irakaskuntza-moduak garatu behar dituzte. Izan ere, eskola inklusiboek haur guztiak elkarrekin heziz gero, desberdintasunaren aldeko jarrerak alda ditzakete, modu honetan bazterketarik gabeko gizarte baten oinarria osatuz.

Hau kontuan izanda, gaur egun munduan emakumeek bere generoa dela eta, diskriminazioa pairatzen dute eta ez bakarrik munduko beste herrialde batzuetan, gure gizartean ere nabarmentzen dira jarrera diskriminatzaile horiek. Hortaz, eskola inklusiboak generoen arteko desberdintasunak alde batera utzi behar ditu, umeak generoen arteko parekidetasunean heziz.

4.2. Hezkidetza

4.2.1. Gaur egungo egoera

Emakume eta gizonen arteko berdintasun-eskubidea Nazio Batuen 1945eko Gutunean jasotako printzipioa da, eta hezkuntza-eskubidea ere Giza-eskubideen Adierazpenean dago jasota (CME, 2009). Hala ere, gaur egungo gizartean emakumeek diskriminatuak izaten jarraitzen dutela ikus daiteke.

Hori dela eta, NBE-k proposatutako Garapen Jasangarrien bosgarren helburua genero-berdintasuna da. Honen xedea emakumeen eta nesken aurkako diskriminazio mota ezberdinak desagerraraztea da. Are gehiago, ideia hau ez da giza eskubide bat soilik, garapen iraunkorra erdiesteko ezinbestekoa da. Beraz, genero-aldea ezabatzea eta emakumeen eta nesken aukerak handitzea beharrezkoa da (Manzano, 2019).

Hortaz, gizarte patriarkal batean bizi garela esan daiteke. Patriarkatua, Rebollok et al. (2010) egindako argitalpenean definitzen duten moduan, gizarte-ordena bat da, zeinetan sexuaren arabera pertsona bakoitzari jarduera, zeregin, harreman eta botere zehatz batzuk esleitzen zaizkion. **Botereen, hierarkien eta balioen sare egituratu horrek "maskulinitasunaren" eta "femeninitasunaren" eredu jakin batzuk proposatzen ditu, unibertsalak,** dikotomikoak eta elkarren arteko aurkari gisa jartzen dituenak. Emakumeen rolen artean, bizitza pribaturako, amatasunerako eta familia zaintzeko

gaitasuna dutela jotzen da eta gizonen rolen artean, aldiz, aginpidea, gobernu eta handinahia izateko gaitasuna dutela esaten da.

Idea hau indartzeko, Amelia Barquínek (2015) patriarkatua gizarte antolakuntza bat dela defendatzen du non gizonek lehentasuna eta botere gehiago (politikan, ekonomian, erlijioan...) duten. Hainbat eragilek kolaboratu dute eta kolaboratzen dute egitura hori bizirauteko: politikariek, erlijiosoek, filosofoek, hezitzaileek...

Honekin batera, androzentrismo kontzeptua ere aipatu beharra dago. Izan ere, Educok (2014) esaten duenez, androzentrismoa errealitatearen ikuspuntu maskulinoa da, gizona eta bere lorpenak unibertsoaren zentroan jarritz. Sexismoaren forma bat da, non emakumeak eta emakumeek egiten duten oro ezkutatzean oinarritzen den.

Hau kontuan izanda, hezkuntza eta eraldaketa prozesu honen parte izateko eta aurrera egin ahal izateko, genero desberdintasunaren jatorria ezagutzea beharrezkoa da. Horretarako, Cabellok (2009) aipatzen duen moduan, emakumeak historian zehar izandako rola eta emakumearekiko izandako ikuspuntua aldatuz joan da. **"Hasieran, emakumeak ikusezinak ziren; ondoren, birsortze- eta ekoizpen-rolak atxiki zitzaizkien, botere-harremanak kolokan jarri barik; eta, azkenik, gaur egun bultzatzen dugun diskurtsora heldu gara"** (Cabello, 2009, 19.orr).

Hortaz, generoa ez da gizabanakoen jabetza, baizik eta gizakiok egiten dugun zerbait. Beraz, generoari buruz hitz egiten dugunean, boterearen eta baliabideen sarbidea eta kontrola gidatzen duen eta elkarreraginak antolatzen dituen esanahien sistemari buruz ari gara hitz egiten (Rebollo et al., 2010).

4.2.2. Zer da hezkidetzak?

Esandakoa oinarritzat hartuz, gizarteak genero bakoitzari ezartzen dizkion rolen isla eskolan ematen da. Hori dela eta, genero berdintasunaren alde egiten duen eskola lortu behar da, hezkidetzak bultzatuz. Hezkidetzaren ikuspegiak berdintasuna eraikitzen laguntzen du, pertsona guztien aniztasuna oinarritzat hartuz. Izan ere, hezkidetzak genero rol eta estereotipoak deseraikitzea du helburu eta egitura patriarkalak eraldatzea

lortu nahi du, antolamendu eta harremanetarako modu bidezkoak sortu ahal izateko (ALBOAN eta Cantera, 2018).

Hezkidetza joera sexistarik gabeko hezkuntzaren alde egiten duen sistema bat da, emakumeen eta gizonen identitateak eraikitzearen azpian dauden prozesu guzti-guztien berri dena, diskriminazioak behatu eta salatzen dituen eta genero-estereotipoek islatzen dituzten mugak gainditzen saiatzen dena. Beraz, sistema mota honek jakintzetan, jarreretan, balioetan eta jokabideetan oinarritutako hezkuntza sustatzen du; pertsonen garapen osoan, lan-munduan, familia-bizitzan, lan-bizitzan eta era askotako herritarren partaidetzetan (**Pallarès, 2019**).

ALBOAN eta Canterak (2018) egindako unitate didaktikoan agertzen diren hainbat ideia oinarritzat hartuz, emakumeen eta gizonen artean nabarmenak diren harreman asimetrikoei aurre egin behar diegu, hau da; berdintasunik ez duten harremanei, berdintasun gizarteak eraikitzeko helburuarekin. Izan ere, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko botere-harremanak sortzen dira, non gizonezkoek nagusitasuna duten eta non gizonek indarkeria erabiltzen duten emakumeen aurka, kontrol-mekanismo gisa. Honetaz gain, gure gizartearen eremuan balioa kentzen zaio emakumeek gizarteari eta ekonomiari egiten dioten ekarpenari, haien denbora eta gorputzari, beraz, aukera- eta eskubide-berdintasunik ez dagoela esan daiteke.

Hezkidetzari esker, beste motako genero-harremanak eraiki daitezke, eta botere-egiturak eraldatu. Gainera, pertsonaren garapen indibidualerako garrantzia duten bestelako gaiak ere hezkuntza prozesuetan txerta daitezke. Hala nola, *gure nortasuna balioestea, komunikazioa, etika, balioak, afektibotasuna, desberdinarekiko errespetua, zaintza-harremanak eta izaki bizidun guztiekiko lankidetz*a (ALBOAN eta Cantera, 2018, 6.orr).

Hortaz, hezkidetzari buruz hitz egiten denean, emakumeari erreferentzia egiteaz gain, gizonari ere erreferentzia egin behar zaio:

Hezkidetza eredu menderatzaitetik eta sinboliko patriarkaletik kanpo heztea da; eta horrek esan nahi du beste erreferente batzuetatik abiatuta bai emakumeok bai gizonok berriro pentsatu behar dugula, bizi garen testuinguru historikoan zer esan nahi duen emakume eta gizon izateak (Blanco, 2007, 24.).

Hau dena kontuan izanda, gizartean emakumeek pairatu izan dituzten eta pairatzen dituzten desberdintasun sexistak historian zehar hezkuntza eremuan ere eman dira. Izan ere, XX. mendeko amaierara arte emakumeak eta gizonak modu bereizian heziak izan ziren, gizonaren figura emakumearen gainetik utziz. Honen ondorioa bizi garen gizarte patriarkala da eta gaur egun eskolan lantzen diren gaietan oraindik ere kultura androzentrikoa **transmititzen da (Sánchez eta Barea, 2019).**

Andrea Fernández-ek (2017) egindako *La Coeducación en el siglo XXI* liburuaren aipamenean esaten duen moduan, hezkidetzaren aniztasunera bideratzen gaituen prozesua dela uste dugu, bakoitzaren desberdintasunak onartuz eta eskubideen berdintasunean hezteko behar den balioa emanez.

Beraz, ideia hau oinarritzat hartuz, hezkuntzan hezkidetzaren zeharkako ikuspegi pedagogiko gisa hartu behar da. Hau da, hezkuntzaren esparru guztietan egon behar duen edukitzat hartuz, prozesu jarraitu gisa eta ez gertaera puntual gisa **(Sánchez eta Barea, 2019).** Alderdi hau oso deigarria da; izan ere, gaur egun irakasle askok, egutegiaren egun esanguratsu bat ospatzeagatik, hezkidetzaren ikasgeletan lantzen dutela defendatzen dute, eta, bitartean, egunegun, hizkuntza sexista baten bidez kontrako ideia sustatzen dute, bere curriculum ezkutuan markatutako estereotipoen bidez.

Laburbilduz, hezkidetzaren sexismoa gabeko eskolarako bidea dela defendatu behar da, eta, beraz, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuneko gizarterako bidea. Egitura akademiko baten premia larria hautematen da, eta horrek genero-ikuspegitik hausnarketa bultzatzen du, eredu inplizitu desparekideak, estereotipo sexistak eta ezkutuko curriculumaz azpimarratuz. Modu honetan, sexismoa gabeko eskola baterantz aurrera egiten ahal izango **da, non irakasleen hasierako prestakuntza funtsezko elementua den (Sánchez eta Barea, 2019).**

4.2.3. Interseksionalitatea

Hezkidetzari buruz gehiago sakontzean, haratago joan gaitezke eta ikuspegi interseksionalaz hitz egin dezakegu. Interseksionalitatea pertzepzio gurutzatuen berri eman nahi duen ikuspegi teoriko eta metodologikoa izendatzeko erabili izan da. Ikuspegi hau feminismoaren barruan ez da berria;

izan ere, izena jarri aurretik teoria feministek arazo honen kudeaketan lan egiten zutela esaten da (Vigoya, 2016).

Interseksionalitateak pertsona bakoitzak bizi duen inklusioa edo bazterketa adierazten digu, baita zer ezaugarriren edo elementuren arabera pairatzen duen hori ere. Generoa, etniak edo azalaren koloreak, adinak, maila sozioekonomikoak, nazionalitateak, erlijioa, joera sexual eta genero-nortasunak, bizitokiak edota desgaitasunak izan daitezke inklusiorako edo bazterketarako arrazoiak.

Hau kontuan izanda, ikuspegi interseksionala badugu, generoaz haratago joan gaitzke eta era horretan egon daitezkeen modu diskriminatzaile desberdinak eta pertsonen ahalmena eta eskubideak kentzen dizkieten mendekotasun-sistemak identifika ditzakegu. Beraz, hezkidetzan ikuspegi interseksionala txertatzeak ekitate ezari aurre egiteko egin dezakegun analisia aberasten du eta aniztasunean berdintasuna lortzeko hobeto bideratutako hezkuntza-jarduerak martxan jartzeko aukera ematen digu (ALBOAN eta Cantera, 2018).

4.2.4. Hezkuntza sailak hezkidetzarekiko duen ikuspuntua EAEn

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Hezkuntza sailak hezkuntza sisteman duen ardatz nagusienetariko bat hezkidetzak da. Hori dela medio, Eusko Jaurlaritzak (2013) hezkuntza sisteman Hezkidetzarako eta genero-indarkeriari aurrea hartzeko Plan Zuzentzailea jarri zuen martxan. Plan zuzentzaile honek hainbat erronka zehazten ditu (Eusko Jaurlaritza, 2013, 12-13):

1. Hezkidetzak-eskolaren eremuan sakontzea eta ikastetxeen kulturen eta praktiketan genero-ikuspegia sartzea planteamendu integral batetik.
2. Ikasleak haien bizitza, ikasketa eta lanbide ibilbidea aukeratzera bideratzea, askatasuna, aukera-aniztasuna eta genero-baldintzarik gabe.
3. Genero-ikuspegia sartzea eskola-porrotari ekitean, eta hezkuntza-sistematik sarbidea unibertsala izango dela bermatzea, baita hezkuntza-sisteman haur guztientzat jarraipena izango dela ere, aniztasun etnikoa, kulturala, soziala, ekonomikoa, funtzionala, sexuala eta abar kontuan hartuta.

4. Harreman afektibo-sexualetarako eta sexu-aniztasunean eta emakumeen eta gizonen berdintasunean oinarritutako elkarbizitzarako heztea.
5. Genero-indarkeriaren prebentzioa, kasuak garaiz detektatzea eta biktimei arreta eraginkorra ematea, hezkuntza-komunitate osoa bereziki inplikatur.

Honetaz gain, 2019an Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako *EAEko hezkuntza sistemarako II. Hezkidetzeta-Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023)* planean hezkidetzaren ardatz nagusiak aipatzen dira (Eusko Jaurlaritza, 2019):

1. Sexismoaren aurreko pentsamendu kritikoa.
2. Hezkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista.
3. Emakumeen jakintzaren integrazioa eta haren eraikuntza sozial eta historikoa.
4. Gatazkak modu baketsuan konpontzea, hezkidetzako bizikidetzaproiektuekin.
5. Autonomia pertsonala eta independentzia ekonomikoa.
6. Ikastetxeko espazioak eta eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak.
7. Berdintasuneko hezkuntza afektiboa eta sexuala.
8. Emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartu eta kasu egitea.

Idea guzti hauek abiapuntutzat hartuz, Euskadiko curriculum-ak, hau da, 236/2015ko dekretuak hezkidetzari buruz zer ideia biltzen dituen aztertzea interesgarria da.

Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren ikasleek gero eta globalizatuagoa den munduan eta elkarrekiko mendekotasunean bizitzeko oinarritzko gaitasunak izan behar dituzte. Era berean, argi dago oinarritzko behar komun horien aurrean erantzun kulturalak oso desberdinak izan direla eta direla. Garrantzitsua da gizakien beharren antzekotasuna onartzea, gure antzekotasunaz jabetzeko. Bestalde, garrantzitsua da kultura bakoitzak eskaintzen dituen behar horien erantzunak ezagutzea, etnozentrismoaren arriskuak saihesteko, kulturartekotasuneko eta kulturaren txertatzeko hezkuntza-planteamenduen bidez, kultura ezberdinen arteko errespetua eta elkarriketa bultzatzeko.

Halaber, aniztasun afektibo-sexuala eta kulturala ezagutzea garrantzitsua da, genero- eta kultura-identitateak malguak eta askotarikoak direla onartzea, eta kultura-, genero- eta sexu-nortasunei lotutako desberdintasuna sustatzen duten ereduak zalantzan jartzea. Ideia hau da hezkidetzaren ikuspuntutik aztertzea interesatzen zaiguna. Hortaz, hau kontuan izanda, hau da dekretuak arlo eta ikasgaietan hezkidetzako helburuak integratzeko proposatzen duena (236/2015 dekretua, 2015):

1. Sexuaren arabera bereizten dituzten aurreiritziak, estereotipoak eta rolak sustatzen dituen edozein jarrera ezabatzea. Aurreiritzi, estereotipo eta rol horiek emakumeei eta gizonei esleitutako jokabide-eredu soziokulturalen arabera daude eraikita, eta helburua da ikasleei garapen pertsonal integralerako aukerak bermatzea.
2. Emakumeen jakintza eta gizadiaren garapenari egiten dion ekarpen sozial eta historikoa integratzea, ematen diren edukiak berrikusiz eta, hala badagokio, zuzenduz.
3. Etxeko lanarekin eta pertsonak zaintzearekin zerikusia duten egungo eta etorkizuneko beharren eta erantzukizunen ardura ikasleek har dezaten beharrezko ezagutzak barneratzea.
4. Ikasleak aukera akademikoak generoan oinarritutako baldintzetatik aske aukeratzeko gaitzea.
5. Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea, gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak eta aniztasunean eta emakumeen eta gizonen eskubide- eta aukera-berdintasunean oinarritutako bizikidetzak-ereduak ikasiz.

Hau kontuan izanda, euskal curriculumak parekidetasunean oinarritutako hezkuntzaren alde egiten du, non sexua edo generoa diskriminaziorako arrazoia ez den. Helburu guzti hauek oinarritzko zeharkako konpetentzien bidez lantzen dira. Hala ere, hau modu eraginkorrean aurrera eraman ahal izateko, alderdi ezberdinak kontuan hartu behar dira. Besteak beste, irakaslearen formakuntza, hizkuntzaren erabilera ez-sexista edota erabiltzen diren materialak.

Irakaslearen formakuntzari dagokionez, hezkuntza-jardunaren hausnarketa beharrezko prozesua da, eskola-praktika aldatu eta hobetzeko. Beraz,

irakasleek jarduera sexistak eragiten dituzten gogoetarik gabeko praktikak aldatu egin behar dituzte, eta problematikak antzematera iritsi behar dira, baita arazo horiei erantzutera. Horretarako, hezkidetzaren arloan irakasleak prestatzea baliagarria izango da ikasle guztientzat kalitate handiagoko hezkuntza inklusiboa garatzeko. Horregatik, ikuspegi sexista zalantzan jarriko duen irakasleen prestakuntzaren alde egin behar da, genero-binarismoa eta genero-rolen ikusmolde estatikoa hausten lagunduko **diona (Sánchez eta Barea, 2019)**.

Bestalde, eskoletan erabiltzen diren materialei dagokienez, genero-estereotipatuak ez diren eta diren materialak ezagutu behar dira. Modu honetan, ikasgeletan orokorrean erabiltzen diren materialak eta liburuak (genero-estereotipatuak daudenak) azter daitezke, estereotipo horiei erreparatuz. Honi esker, berdintasuna irudikatzen dituzten liburuak aukeratu ahal izango ditugu eta azkenean, prozesu honen bidez, ikasleak material eta liburu inklusiboak baloratuko, gustuko eta erabiliko dituzte (Ugarte, 2019).

Bukatzeko, gure gizartean berdintasunaren bidean aurrera egin nahi dugun arren, kultura sexista eta androzentrista batean hezi eta bizi garela badakigu. Ondorioz, errealitate hau hizkuntzaren erabileran azaltzen da, generodun edo genero-**gabeko hizkuntza erabili arren (Barquín, 2008)**. Halaber, hizkuntzaren bidez komunikatzeaz gain, gauza ezberdinak helarazi daitezke. Hizkuntza sozializatzeko agente garrantzitsutzat hartzen da eta hezkuntza arloan, balioen eta emakumearen ikusezintasuna eta gutxiestearen inguruko **estereotipoen bidez, diskriminazioa sortzen da (Velasco, Vázquez eta Ibañez, 2009)**. Hori dela eta, eremu ezberdinetan gizon eta emakumeek duten presentzia azaldu eta berdín baloratzen dituen hizkuntzaren erabilera beharrezkoa da.

Hau dena kontuan izanda, gaur egungo ikastetxeetan nabaritzen den premietako bat genero desberdintasunekin bukatzea dela aintzat hartuz, hezkidetzan oinarritutako hezkuntza beharrezko da. Horretarako, metodologia aktibo baten bidez egitea komeni da eta kasu honetan, ikaskuntza zerbitzuaren bidez. Izan ere, ikaskuntza zerbitzuak protagonista gizartearen eraldatze prozesuaren parte izatera eramaten du, hausnarketarako eta pentsamendu kritikorako gaitasuna sustatuz. Are

gehiago, metodologia honi esker ikaskuntza aktibo eta esanguratsua lortu egiten da eta gainera, zerbitzuak ikaskuntzari zentzua ematen dio; nire ikuspuntutik ezinbestekoa dena.

4.3. Ikaskuntza-zerbitzua

4.3.1. Zer da ikaskuntza zerbitzua?

Ikasketa eta zerbitzua hezkuntza-proposamena da, eta ikasketa zein erkidegoarentzako zerbitzua bateratzen ditu ondo egituratutako proiektu bakar batean. Bertan, hain zuzen ere, parte-hartzaileek ikasi egiten dute eta, aldi berean, ingurune benetako premietan lan egiten dute, hobetzeko asmoz (Puig et al., 2007).

Esan bezala, ikaskuntza-zerbitzuaren berritasuna eta aberastasuna komunitateari zerbitzua ematean eta ikaskuntza esanguratsuan dago eta proiektu koherente eta ondo artikulatu bakar batean integratzean datza. Alde batetik, zerbitzu-ekintza bat garatzeak ikaskuntzei zentzua ematen die eta bestetik, ikaskuntza aktibo eta esanguratsua garatzeak hobetu egiten du elkartasun-ekintza. Elementu horiek, gainera, hausnarketarako eta pentsamendu kritikorako gaitasunak sortzen laguntzen dute eta elkartasunezko konpromisoaren garapena sustatzen dute (Puig et al., 2011).

Halaber, Pilar Aramburuzabalak (2013) dioen moduan, metodologia hau ikasteko eta gizarte eraldatzeko tresna oso ahaltsua da eta horri esker, ikasleek inguruko beharren gainean jarduten duten bitartean ikasten dute, ekintza ezberdinen bidez errealitatea hobetzeko xedearekin eta, aldi berean, bizitako esperientziari buruz gogoeta egituratua eginez.

Ikaskuntza zerbitzuak gizarte eta herritar oinarrizko gaitasunak, baita norberaren autonomiarako gaitasuna ere garatzen laguntzen du. Metodologia honek, alde batetik, esperientzian oinarritutako ikaskuntzen metodologiekin harreman estua du eta bestetik, erkidegora zuzendutako jokabide prosozialekin. Izan ere, bi osagai hauek bateratzen ditu ikaskuntza aberasgarriagoa lortuz **(Hernández, Larrauri eta Mendía, 2009):**

- Zerbitzuak zentzua ematen dio ikasketari, hari esker erabilgarria eta baliagarria baita. Honetaz gain, curriculumean agertzen diren osagai didaktikoak ere jaso egiten dira.

- Ikasketari esker, zerbitzuaren kalitateak gora egiten du, eta sakontasun gehiago hartzen du. Izan ere, zer egiten denari buruz eta zergatik egiten denari buruzko hausnarketa bultzatzen du.

Izan ere, metodologia honetatik aipaturiko bi osagai hauen batuketa baino askoz gehiago lortzen da, produktu berri bat hain zuzen ere.

Ilido beretik, Tapiaren (2016) aburuz, ikaskuntza zerbitzua modu ezberdinetan uler daiteke:

- Ikasleek modu aktiboan parte hartzen duten proiektu, esperientzia edo programa instituzional bat bezala.
- Ikaskuntza esanguratsua sortzen duen ikaskuntza-irakaskuntza metodologia bat bezala.
- Filosofia edo pedagogia bat bezala.

4.3.2. Nola jakin ikaskuntza zerbitzua den ala ez?

Ikaskuntza zerbitzua beste eskuhartze sozial edo boluntarioak diren jarduerekin desberdindu egin behar da. Honetarako, Rubiok (2007) ikaskuntza zerbitzua azaltzean zenbait proposamen egiten ditu, hiru, hain zuzen ere.

1. Ikaskuntza zerbitzuaren eta borondatezko lanaren artean aldea dago. Izan ere, borondatezko lanetan erkidegoarentzako egiten den zerbitzua nagusitzen da eta ez da zertan ikasketa espliziturik agertu. Hala ere, borondatezko lanetan egiten diren jarduerak ikaskuntza zerbitzuko proiektuetarako abiapuntutzat har daitezke.
2. Ikaskuntza zerbitzuaren eta landa-lanaren artean desberdintasunak daude. Kasu honetan, ikasketa-proiektu bat edo practicum bat ikasketan oinarrituta dago, zerbitzua alde batera utziz.
3. Ikaskuntza zerbitzuaren eta noizbehinkako ekintza boluntarioen arteko desberdintasunak existitzen dira. Ekintza hauen zerbitzuak kalitatekoak dira eta eragina dute, baina ez da ia ikaskuntzarik ematen.

Azaldutako Rubioren (2007) idea guzti hauek ondorengo argazki honetan grafikoki azaltzen dira, jarduera bakoitzak ikaskuntza zerbitzuarekin dituen aldeak aurkeztuz.



1.Irudia: Rubio, L. (2007). Ikaskuntza zerbitzua eta beste esperientzien pedagogien konparaketa. 6.orr

4.3.3. Ikaskuntza zerbitzua martxan jartzeko aldeko arrazoiak

Ikaskuntza zerbitzua eremu ezberdinetan hainbat onura ekartzen dituela defendatzen du Rubiok (2007). Honen aburuz, lau arlo nagusietan sailka daitezke onurak:

1. Protagonisten arloan
 - a. Esperientzian oinarritutako ikaskuntza esanguratsua eta kritikoa sustatzen da.
 - b. Zerbitzuaren egileek (kasu honetan, ikasleek) eta hartzaileek onurak jasotzen dituzte.
 - c. Ikaskuntzarako motibazioa sustatu egiten da.
2. Hezkuntza-erakundearen arloan
 - a. Ikasleen garapen akademikoa, herritarra, etikoa, soziala, pertsonala eta profesionala hobetzen da.
 - b. Metodologia tradizionaletatik haratago doa.
 - c. Ikastetxeetako giro soziala hobetzen da.
3. Erkidegoaren arloan
 - a. Gizartea hobetzeko helburuarekin gizarte-erakundeekin modu koordinatuan lan egiten da. Beraz, sareko lana sustatzen da.
 - b. Ikasleen erantzukizun soziala sustatzen da.
 - c. Lurraldeko elkarte-sarea indartzen da.
4. Arlo politikoan

- a. Politika jarduerak ulertzeko aukera eskaintzen du ikaskuntza zerbitzuak.
- b. Herritartasunaren eta erantzukizun sozialaren erabilera hobetzen da.
- c. Proposamen iraunkorra da, hezkuntza eta gizarte beharrei erantzuteko balio duelako.

4.3.4. Ikaskuntza zerbitzuaren bidezko ekintzak martxan jartzea

Ikaskuntza zerbitzuan oinarritutako proiektu bat aurrera eramateko, bai ikasketa bai zerbitzua osagaiak bermatzen direla ziurtatu behar da. Hori dela eta, proiektu hauek hiru une ezberdinetan banatzen dira (prestakuntza, betearazpena eta ebaluazio uneak). Aipaturiko une hauek zazpi fasetan desberdin daitezke eta fase bakoitzak eragile ezberdinen arabera (taldearen **adina, proiektu mota...**) **garrantzia berezia izango dute. Hona hemen** ikaskuntza zerbitzuko proiektu batek dituen faseak (Puig et al., 2008):

1. Fasea: Zirriborroa egitea

Fase honetan interesgarria edo gustukoa den ideia bat hartu behar da abiapuntutzat. Behin hori eginda, ikastetxeko zuzendaritza taldearekin eta irakasle taldearekin irakaskuntzako jardunetan nola txertatuko den adosteko. Fase honi amaiera emateko, ikasleek zer beharrari edo arazo sozialari erantzuna emango dioten, zein izango den egingo duten zerbitzua eta zer ikasketa lortu nahi diren zehaztu behar dira.

2. Fasea: Gizarte-erakundeekin harremanak sortzea

Ikaskuntza zerbitzua aurrera eramateko normalean erakundeekin kontaktuan jarri behar dira hezkuntza instituzioak eta gizarte erakundeek zerbitzua egingo duen errealitatearekiko lotura eskaintzen dute. Kasu honetan, unibertsitateak ematen da zerbitzua. Izan ere, unibertsitateko ikasleek diseinatzen dute zerbitzu osoa eta hauek izango dira zerbitzua praktikan jarriko dutenak.

Mota hauetako proiektuak egin ahal izateko ezinbestekoa da eskolaz kanpoko harremanak ezartzea. Halaber, parte hartuko duten alde guztien konpromisoa beharrezkoa da. Hori dela eta, dokumentu bat sinatu egiten da.

3. Fasea: Plangintza

Lan egingo den erakundearekin akordio bat izanda eta proiektuaren zirriborroa eginda izanik, planifikatzeko momentua da hau. Ikasleen adinaren arabera, plangintza taldearekin prestatuko da eta gida moduko txosten bat prestatzea gomendagarria izaten da. Baliteke aurrerago dokumentu horretan idatzitako aurreideiak aldatu behar izatea eta proiekturako izena fase honetarako ezarrita egon behar da.

4. Fasea: Prestaketa

Ikasleek proposaturiko ideiekin batera, plangintza egiten hasteko unea da. Ikasleen proposamenak gehitzeak pertsona guztien inplikazioa eta proiektu pertsonalizatu bat lortzea suposatzen du. Fase honen bukaerarako neska-mutilek egindako dokumentu, poster edo txostenen bat eginda izatea komeni da.

5. Fasea: Betearazpena

Fase honetan plangintzan jasota agertzen ez diren ustekabeak gerta daitezke eta ondorioz, hasierako plangintzan moldaketak egin beharko dira. Fase honen bukaeran, egin den guztiaren materialak eduki beharko dira, egindako guztia jasota izateko.

6. Fasea: Amaierako hausnarketa

Ikasleek esperientzia osoaren ebaluazioa egingo dute, bai ikasketa bai zerbitzua aintzat hartuz. Fase honetan, proiektuari amaiera eman edo proiektu hau beste batekin lotzeko aukera eman behar zaio. Fase honen amaieran, ikasleek prestatutako materiala (txosten idatzia, muralak, material **digitalak...**) **izatea gomendatzen da.**

7. Fasea: Ebaluazio finala

Ikasleekin egindako proiektua amaitu eta ebaluatu ondoren, irakasleek esperientziari buruzko gogoeta egin beharko dute. Honetaz gain, erakundearen, familiaren edo lankideen balorazioak ere jaso daitezke. Proiektuari buruzko memoria bat egitea oso lagungarria izan daiteke etorkizuneko lanetarako, baita egindako lan guztia ez ahazteko ere.

Hau dena kontuan izanik, esperientzian oinarritutako ikaskuntza sustatu egiten duen metodologiaren eta erkidegoa laguntzeko eta sare berriak sortzeko metodologiaren alde egin behar da. Hori dela eta, nire ikuspuntutik, gaur egungo ikastetxeetan nabaritzen den premietako bat genero desberdintasunekin bukatzea dela kontuan izanda, nire proposamenean hezkidetzak landu egingo da. Horretarako, zerbitzua egingo den eskolaren ezaugarriak eta testuingurua ezagutzea ezinbestekoa da, jarduerak eta saloak ikastetxeko beharretara egokitzeko.

5. Testuingurua eta zerbitzuaren proposamena

5.1. Eskolaren testuingurua

Proposamena aurrera eramanean den eskola Gasteizko auzo langile batean kokatzen da eta gaur egun, kultur aniztasun handiko zentro publiko bat da. Izan ere, eskolak jatorri ezberdinetako ume asko jasotzen ditu, jatorri edo familia euskalduna duten umeak gutxiengoa izanez. Honetaz gain, ikastetxeak Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza eskaintzen du. Eskola osoan B eredu hirueleduna eskaintzen da; hau da, matematikak erdaraz egiten dira eta gero, zientziak ingelesez. Beste ikasgaiak gaztelania eta ingelesa izan ezik, euskaraz ematen dira.

Kasu honetan, Lehen Hezkuntzako eraikinean zentratuz, maila bakoitzeko bi gela daude. Beraz, alde honetatik oso ikastetxe handia ez dela esan daiteke. Hala ere, gela hauetatik gain, hezkuntza premia bereziak dituzten umeentzako programa bat aurrera eramaten da. Hamazazpi hezitzaile daude programa honetan lan egiten eta fisioterapia, motrizitatea eta bestelako gelak dituzte.

5.2. Eskolarekin harremana

Aldez aurretik ikastetxe hau ezaguna zen niretzat, hirugarren mailan praktikak bertan egin nituelako. Honetaz gain, eskolako PT bat ezagutzen dudanez, berarekin kontaktuan jarri nintzen eta nire proposamen osoa azaldu eta gero, zikloko bilera batean aurkeztu zuen ideia. Lehen Hezkuntzako 5. mailako tutoreek interesa erakutsi zuten, beraiekin bildu nintzen nire zerbitzuaren helburuak eta etekin osoa azaltzeko. Halaber, zuzendariarekin hitz egin nuen ados zegoen jakiteko. Tutoreek askatasun handia eman zidaten nahi nuena egiteko. Haien laguntza aste guztietan zehar eskaini zidaten eta

kontaktua beti mantendu genuen eskolaz aparte emailen bidez. Familia eta tutoreei gutun bat bidaltzea erabaki genuen, haien seme-alaben parte hartzeko baimena eskatuz (1. Eranskina). Are gehiago, eskolako orduetan egitea ere eskaini zidaten, baina azkenean, jantokiko orduetan aurrera eramatea erabaki genuen. Zuzendariarekin hitz egin nuen eta eskerrak eman zidan horrelako proposamenak eskolan egiteagatik eta beste edozertarako bertara joateko esan zidan.

5.3. Gelaren azterketa

Hasteko, klaseko espazioari dagokionez, eraikina nahiko zaharra dela esan beharra dago eta honek gelak ere zaharkitu samarrak daudela esan nahi du. Hala ere, klasean aurki daitekeen material guztia berria da eta teknologia eta beharrezkoak diren elementu guztiak aurki daitezke. Ildo beretik, klase antolakuntzarekin hasi aurretik, nire zerbitzuan gela bakoitzeko ume guztiak geratu ez direla aipatu beharra dago, jantokiko orduan egin baitzen. Hortaz, gela batean 15 neska-mutil eta bestean 13 egon dira.

Lehenik eta behin, gelaren distribuzioari dagokionez, nahiz eta gela oso handia ez izan, nahiko zabala da eta ikasleentzat ez da espazio faltarik nabaritzen. Dena den, gela gehienak antzeko tamaina dutela kontuan izanik, nire ustez ume gehiago dituen gela batentzat txikia izan daiteke. Honetaz gain, umeak gelan taldeka eserita daude, launaka hain zuzen ere. Nahiz eta taldeka eserita egon, aukeratutako distribuzioak Covid-19a dela eta, distantziak mantentzea bermatzen du. Honetaz gain, geletako hormetan ikasleek egindako proiektu ezberdinak eskegita daude, baita klaseko arauak ere.

Eskolaren testuinguruan aipatu den moduan, eskola hau kultur aniztasun handiko ikastetxe bat da eta egondako geletan eskolak duen aniztasuna islatzen da. Izan ere, 5. mailako bi geletan, gehiengoan familien jatorria kanpotarra da, hau da, haietako askok Gasteizen jaio izan arren, haien familiak ez dira euskaldunak. Batez ere, arabiar jatorriko umeak daude, baina errusiar, errumaniar, georgiar eta latinoamerikar jatorrikoak ere aurki daitezke.

Hau kontuan izanda, ume gehienen ama-hizkuntza ez da gaztelania ez euskara, baina komunikatzeko ez dago arazorik, gehienak Gasteizen jaiok direlako edo oso txikitatik Gasteizen bizi direlako. Hala ere, nahiz eta gaztelania primeran menperatu, euskara maila oso baxua da eta gainera, ez dute gustuko. Honek proposaturiko jardueren ulermenerako arazo larriak ekarri ditu eta gutxi batzuk gai dira elkarrizketa bat euskaraz aurrera eramateko.

Bukatzeko, ikasleen arteko harremanei erreparatuz gero, oro har, harreman ona dago ikasleen artean eta neska eta mutilak nahasten dira. Hala eta guztiz ere, etengabeko errespetu faltak daude haien artean irainduz. Badaude botere-harremanak eta oso argi ikusten da nola batzuen ideiak eta ikuspuntuak beste batzuenak baino askoz gehiago entzuten diren. Honetaz gain, badaude ikasleak besteen arreta deitu nahi dutenak eta horretarako oihukatu, altxatu edo klasetik ateratzen dira.

5.4. Proposamena

Zerbitzu honen proposamena jantokiko orduetan aurrera eraman da. Zerbitzu osoak hamar ordu iraun du; beraz, bi aste igaro ditut zentroan. 5. mailako bi geletako ikasleekin eginbeharreko proposamena zela kontuan izanda, haien adinetara egokitutako jarduerak proposatu dira eta gela bakoitzekin 5 ordu egon naiz. Hona hemen proposaturiko zerbitzuaren helburuak:

1. Hezkidetzan oinarritutako hezkuntza bultzatzea, ikaskuntza-zerbitzuaren bidez.
2. Ikasleen artean ematen diren sexuen araberako desberdintasunezko jarrerak eta jokabideak identifikatzea.
3. Sexuaren araberako estereotipoak eta rolak identifikatzea eta haustea.
4. Sexu ekitatean hezteak.
5. Genero-identitate eta sexu-orientazio aniztasuna ezagutzea eta onartzea.

Helburu hauek bete ahal izateko, bi geletan aurrera eramateko jarduera ezberdinez osatutako 5 saio prestatu dira. Hona hemen zerbitzua martxan jarri aurretik egindako saioen planifikazioa:

Sarrera:

Lehenengo egunean, sarrera moduan gure buruak aurkeztuko ditugu eta honekin batera, ikasleen aurreikuspenak eta aurrezagutzak jakiteko asmoz dinamika txiki bat egingo dugu. Arbelean hurrengo saioetan landu egingo dugunaren inguruko hitz gako batzuk idatziko ditugu (hezkidetzak, genero berdintasuna, genero identitatea eta sexu orientazioa). Ikasle bakoitzak bere burua aurkeztuko du eta honetaz gain, arbelean dauden hitzen esanahia ulertzen duten eta saio hauetatik zer espero duten aipatu beharko dute.

Saioak:

1. Saioa: Zerk definitzen gaitu?

Helburua: *Sexuen araberako estereotipoak identifikatzea eta horiek bertan behera uztea.*

Jarduera hau egiteko ikasle taldea bitan banatuko da. Azpi talde bakoitzak bi paper luze (mural tamainakoa) izango ditu. Paper bakoitzean bi pertsonen siluetak egingo dituzte. Behin siluetak eginda, batean neska batek izan behar dituen edo dituen ezaugarri guztiak jartzeko eskatuko diegu eta bestean gizonezkoen ezaugarriak (fisikoak zein psikologikoak).

Behin azpitaldeetan, haien siluetak eginda dauden talde osoarekin partekatuko dute, azpitaldeen artean ateratako ezaugarriak antzekoak diren ala ez ikusiz. Honetaz gain, estereotipoetan erori diren ikusiko dugu eta horrela izanez gero, hausnarketarako galderen bidez saiatuko gara horiek apurtzen. Dinamika hau sexu bitarrean oinarritzen da. Hau da, emakume eta gizonaren siluetak egitea eskatzen zaie ikasleei. Hortaz, behin siluetak eginda, eta sexu bitarretik haratago joan behar garen ideia helarazteko honelako galderak egingo ditugu:

- *Zer gertatuko litzateke genital maskulinoak dituen silueta emakume bat dela esaten badugu edo alderantziz? Onartuko zenukete? Zergatik?*

Modu bisualagoan egiteko, silueta marrazkiak egin ditzakegu eta honetaz gain, sexua ez duten pertsonak daudela ere aipatu beharra dago.

Beraz, jarduera honen bidez, alde batetik, pertsona baten genitalek ez dutela

norberaren identitate sexuala definitzen argi utzi nahi da eta bestetik, genero bitarretik aterata, genero rol eta estereotipoekin amaitu nahi da.

Materiala: Papera eta errotulkiak.

Denbora: Ordu bat.

2. Saioa: Etiketak kentzen

Helburua: *Gure gizartean zer genero-estereotipo dauden eta nola eragiten diguten hausnartzea.*

Genero estereotipoak

Ikasleei gelaren erdian ilaran jartzeko eskatuko diegu. Ondoren, esaldiak irakurriko ditugu banan-banan (2. Eranskina). Esaldi horiek genero maskulinoarekin edo femeninoarekin lotutako estereotipoak dira, eta horiekin identifikatuta sentitzen badira, eskuinera (estereotipo maskulinoa) edo ezkerrera (estereotipo femeninoa) urrats bat emateko esango diegu. Identifikatuta sentitzen ez badira, bere lekuan geratu beharko dira, urratsik eman gabe.

Adibidez, 1. esaldia (estereotipo femeninoa) irakurri ondoren, esaldiarekin bat egiten dutenei ezkerrera urrats bat emateko eskatuko diegu. Ikasleek ez dute jakin behar esaldiek genero-estereotipoak aipatzen dituztela, ezta zergatik eman behar dituzten urratsak batzuetan eskuinera eta besteetan ezkerrera ere. Behin esaldi guztiak irakurrita, ikusiko dugu nola geratu den klasea eta batez ere, ea neska gehienak erditik ezkeralderantz eta mutilak eskuinalderantz geratu diren.

Hausnarketarako momentua

Ikasleekin aurreko dinamika komentatzeko garaia da. Galdera hauek egingo dizkiegu:

Zein zen dinamikaren helburua? Zuen ustez, zer gai ari gara lantzen?

Gaia zein den jakiten dutenean, dinamizatzailleak zenbait kontzeptu definituko ditu (sexua, generoa, genero-estereotipoak) eta galdetuko diegu ea zer arrazoiengatik betetzen diren oraindik ere genero-estereotipoak eta haien

ustez estereotipo horiek egokiak diren (3. Eranskina).

Materiala: Esaldiak eta kontzeptuen definizioak.

Denbora: 45 minutu (20 dinamikarako eta 25 hausnarketarako).

Betaurreko moreak

Bukatzeko, estereotipoekin amaitu behar dugula eta beti genero ikuspuntu batetik begirada jarri behar dugula modu bisual batean barneratzeko, hezkidetzaren betaurreko moreak egingo ditugu. Ikasle bakoitzak nahi duen formarekin bere betaurrekoak diseinatuko ditu kartulina more batean eta ondoren, moztu eta eraikiko ditu. Modu honetan, betaurrekoen metaforaren bidez, beti betaurreko moreak jantzita eraman behar ditugula esan nahi du, sexuaren araberrako edozein jarrera baztertzailerak salatuz.

Materiala: Kartulina moreak, artaziak, kola, zotz luzeak, zelo.

Denbora: 15minutu.

3. Saioa: Esperientzien liburuxka morea

Helburua: *Ikasleen artean ematen diren sexuen araberrako desberdintasunetako jarrerak eta jokabideak identifikatzea.*

Jarduera honetan ikasleen esperientzia propioetan oinarrituko gara. Horretarako, galdera gidatzaile batzuk proposatuko dira eta horien helburua, sexuaren, genero identitatearen edota sexu aniztasunaren araberrak pairatutako egoera baztertzailerak azalaraztea da. Honen bidez, esperientzia pertsonaletik abiatuta (desberdintasunetatik abiatuta) ezaugarri komunak edo partekatzen ditugun egoerak lortu nahi ditugu . Banan-banan egingo den jarduera izango da eta gero, partekatuko ditugu denon artean gure esperientziak. Esperientzia guzti hauek liburuxka moduko batean bilduko dira, klaseko bizipenak liburuxka morean gordetzeko. Kontuan hartu behar da nahiko pertsonala den jarduera bat dela. Hortaz, ikasle guztiei hausnarketa pertsonala egitera animatuko zaie, baina partekatu nahi ez izanez gero, beraienez gordetzeko aukera izango dute.

Honen inguruan hausnartzeko, gai nahiko pertsonala denez giro eroso eta

lasaia lortzen saiatuko gara, batez ere jantoki orduan dela kontuan izanda. Horretarako, musika lasaia jarriko da.

Galdera gidatzaileak:

- *Noizbait sentitu zara baztertuta?*
- *Hala bada, horietako egoeraren bat zure sexuagatik edo identifikatuta sentitzen zaren sexuagatik izan da? Edo pertsonaren bat gustuko izanagatik?*
- *Nola sentitzen zara honen aurrean?*
- *Zer egin dezakegu hau aldatzeko?*

Materiala: Orri zuriak, boligrafoak, errotulkiak, liburuxkaren azala egiteko kartulinak, grapagailua.

Denbora: Ordu bat (30 minutu idazteko eta 30 minutu esperientziak partekatzeko).

4. Saioa: Nor da nor?

Helburua: *genero identitatea eta sexu aniztasuna ezagutzea eta onartzea.*

“El vestido nuevo”

Saio hau estereotipoen eta etiketen buruzko **bideo bat ikusiz hasiko dugu, “El vestido nuevo” (Soineko berria) izenekoa. Film laburra ikusi ondoren, filmaren gainean egingo da lan, alderdi askotatik (atentzioa eman diguten erreakzioak, jarrerak, esaldiak...).** Horretarako, **taula bat (4. Eranskina)** emango zaie ikasleei lehenengo bikoteka egiteko eta gero ikasle guztien artean betetzeko. Jarduera bukatzeko, honako galdera hauek erabil daitezke, film laburra aztertzeoak eta film laburretik ondorioak ateratzekoak:

Nola sentitu zarete bideoa ikustean? Nola uste duzue sentitu dela Mario? Irakaslea aipatuz, uste duzue badirudiela “Mariori ez zaiola ezer gertatzen”? Zergatik? Zer gertatuko litzateke ikaskideren bat Mario bezala sartuko balitz ikasgelan?

Materiala: ordenagailua, proiektorea/arbela digitala, taulak, bideoa:
<https://youtu.be/LVdfnQPUYLY>

Denbora: 30 minutu.

Kontzeptu batzuk ikasten

Honetarako pertsona bakoitzak paper ezberdinak izango ditu eta bertan hitz hauen definizioak izango dituzte (5. Eranskina). Irakurtzeko denbora izan eta gero, gelan zehar definizio hauen kontzeptuen izenak egongo dira eta ikasleek definizioak kontzeptuarekin lotu beharko dituzte eta horretarako, itsatsi beharko dituzte definizioak kontzeptuak agertzen diren paperetan. Behin hau eginda denon artean partekatuko dugu eta termino bakoitzerako definizioa aterako dugu.

Materiala: terminoen izenak dituzten kartulinak, definizioak dituzten paperak, zelo.

Denbora: 30 minutu.

5. Saioa: Murala

Landutako guztiari amaiera emateko, mural bat egingo dugu eta bertan beste egunetatik ateratako hausnarketa finala aurkeztuko da. Hausnarketarako galdera orientatzaile batzuk egongo dira, eta muralean idatziz zein marraztuz adierazteko aukera izango dute.

- *Zer ikasi dut egun hauetan?*
- *Nola sentitu naiz?*
- *Ikasitakoa kontuan izanda, nire jarrerak/ jokabideak aldatzen saiatuko naiz?*
- *Horrela bada, zeintzuk?*

Ikasle bakoitzak ere hausnarketa pertsonala egingo du eta muralean adieraziko du. Modu honetan, denon hausnarketa indibidualetik abiatuta, talde-hausnarketa batera iritsiko gara, eta gure produktu finala (murala) lortuko dugu. Kasu honetan, Covid-19 dela eta, mural bakar batean denak zuzenean margotu eta idatzi ordez, segurtasun neurriak mantentzeko asmoz, lau pertsonetako taldeetan egingo dute murala. Behin hau bukatuta, murala aurkeztuko dute taldeka, bakoitzak bertan adierazitako ideiak partekatuz.

Ondoren, talde bakoitzeko muralak batuko ditugu puzzle bat bezala, klase osoko mural bat sortuz. Bukatzeko, korridorean eskegiko dugu, beste kideek ikusteko aukera izan dezaten.

Materiala: Muralaren papera, errotulkiak eta margoak.

Denbora: 45 minutu.

Itxiera:

Bost saio hauei amaiera emateko, behin murala bukatuta, ikasle bakoitzari ekintza guztiei buruzko ebaluazio fitxa txiki bat emango zaio (6. Eranskina). Hau betetzeko 10-15 minutu izango dituzte eta gero, amankomunean jarriko ditugu ateratako ideiak eta partekatuko ditugu hausnarketak eta nola sentitu garen.

Materiala: Ebaluazio orriak.

Denbora: 15 minutu.

Bukatzeko ekintzen egutegiari dagokionez, eskolako 5. mailako tutoreekin adostu egin da, eta txandaka egiten da, ikasleak astean bitan Bidelagunera joaten direlako. Hortaz, 5.A klasekoekin nagoen egunetan, 5.B-ko ikasleek Bidelagun izango dute eta alderantziz (7. Eranskina).

Laburbilduz, ikastetxeko beharretatik abiatuta eta bertako aniztasuna eta ikasleen arteko harreman motak kontuan izanda, planifikatutako saioak eskolan aurrera eraman dira, bertatik emaitza batzuk lortuz. Emaitza horiek lortu ahal izateko, informazioaren analisi kualitatiboa egin da, hurrengo atalean ondo azalduko dena.

6. Metodoa

Proposamena ikastetxean aurrera eraman den bitartean, informazioa eguneroko batean jaso egin da. honetaz gain, jarduera ezberdinen argazkiak atera egin dira eta dinamika ezberdinetan egindako posterrak, marrazkiak, fitxak etab. jaso egin dira. Halaber, landa oharrak ere erabili dira informazioa

biltzeko eta proposamenarekin bukatzeko eta proposamen guztia ebaluatzeko asmoz, ikasleek egindako ebaluazioa ere jaso egin da.

Behin informazio guztia bilduta, informazioa aztertzeko eta emaitzak ateratzeko xedearekin lehendabizi informazioa antolatu eta ordenatu egin da. Ondoren, informazioa kategorien arabera sailkatu, laburtu, elkartu eta ordenatu egin da, datuen eta informazioaren analisi kualitatibo bat eginez. Behin kategorizazioa eginda, sailkatutako informazioaren interpretazioa aurrera eraman da eta datuak laburtu, batu eta berrantolatu egin dira azken emaitza ordenatu bat aurkeztu ahal izateko. Hona hemen informazioa kategorizatzeke erabilitako taula:

1. Taula: Informazioa sailkatzeko kategorizazioa

DIMENTSIOAK	KATEGORIAK	AZPIKATEGORIAK
Esperientziak eta anekdotak		
Harremanak	Botere-harremanak Ikasleen arteko harremanak Rolak Irakasleekiko harremanak Eskolarekin izandako harremana	
Planifikazioa	Aspektu metodologikoak	Denbora Diseinua Espazioa eta materiala
	Proposamen didaktikoa	Ikasleen erantzunak Balorazioak
	Faktore oztopatzailleak	
Sentipenak	Erronkak Hausnarketak	

	Zalantzak eta kezkak	
Intzidente kritikoak	Gertaerak Hartutako erabakiak	

7. Emaizak

7.1. Aukeratutako gaia

Gai honen inguruan hitz egitea (sexualitatea, sexu-**aniztasuna, hezkidetza...**) asko gustatu zaie interesatzen zaien gai bat delako, baina orokorrean eskolan gehiegi lantzen ez den gai bat da. Hori dela eta, sexualitateaz hitz egiteak **barrea sortzen du umeen artean, eskolan ez lantzeak "tabutzat" hartzea** suposatzen baitu. Gainera, haien errealitateetik gertu dauden gaiak dira eta askotan haien esperientzietatik abiatu garenez, identifikatuta sentitu dira, landutako gaien eta haien bizipenen arteko loturak egin baitituzte.

Honetaz gain, ALBOAN eta Canterak (2018) dioten moduan, gizarteak genero bakoitzari ezartzen dizkio rol batzuk. Orokorrean, neskak izan dira identifikatuta sentitu direnak, baina patriarkatuak mutilengan eragiten duen presioa ere nabaritu egin da.

A mí en mi casa me decían de pequeño que no jugara con muñecas porque eso es de chicas, pero a mí me gustaba. (Egunerokoa, 2020/12/09)

Hortaz, Blancok (2007) defendatzen duen moduan, hezkidetzari buruz hitz egiten denean, emakumeari erreferentzia egiteaz gain, gizonari ere erreferentzia egin behar zaiola argi ikusi da. Beraz, sistema patriarkal honek inposatzen dituen erreferenteetatik haratago joan behar gara, bizi garen testuinguru historikoan zer esan nahi duen emakume eta gizon izateak birplanteatuz.

Hizkuntza aldetik, askotan azalekoa dirudien arren, kasu honetan ere, ikasleak ez dira kontziente hizkuntzaren bitartez ere sexismoa kutsa daitekeela. Nabarmenezkoa da, kasu batzuetan ikasleen erreferenteak mutilak direla, emakumeen inguruko informaziorik jasotzen ez dutelako. Are gehiago, hizkuntza sozializatzeko agente garrantzitsutzat hartzen da eta hezkuntza arloan, balioen eta emakumearen ikusezintasuna eta

gutxiestearen inguruko estereotipoen bidez, diskriminazioa sortzen da (Velasco, Vázquez eta Ibañez, 2009). **Honen adibide garbia** haien egunerokotasunean **“maricón” bezalako hitzen erabilera da. Askotan hitzen benetako esanahia ez dute ulertzen eta hala eta guztiz ere, irain moduan erabiltzen dute. Ondorioz, hezkidetza eta sexualitatea landu izanak kontzeptuen esanahiak ezagutzea ekarri du eta “maricón” bezalako hitzak zergatik irain moduan erabiltzen dituzten hausnartzen hasi dira.**

Errealitatearekin lotura egin dute. **Izan ere “maricon” hitza asko erabiltzen dute, nahiz eta horren esanahia ez ezagutu.** Mota honetako hitzak irain bezala erabiltzea egokia ez den inguruan asko hitz egin dugu. Haien jatorria eta esanahia ikusi eta gero, horrelako hitzak irain moduan erabiltzearen zergatia galdetu dute eta eztabaida sortu da. (Egunerokoa, 2020/12/04)

7.2. Harreman motak

Beste ildo batetik, ikasleen arteko harremana nahiko estua dela esan daiteke eta neska eta mutilen artean nahastu egiten dira arazorik gabe. Dena den, lehenengo egunetik neska-mutilen arteko botere-harremanak nabarmenak **izan dira. Talde txiki batzuk “popularrak” dira eta hauek beste klase kide gutxi** batzuen iritziak baldintzatzeko gai dira. Egia esan, ez dute haien ikuspuntua inposatzen, baina klasekoek taldearen parte sentitzeko asmoz, iritzi nagusia onartzen dute.

Lotsatiagoa edo isilagoa den neska batek zerbait esan duenean, klaseko **liderrak esan dio: “¡Tía, qué dices! Eta neskak bere ideia defendatu ordez,** zuzenean lider rola duen neskaren ideia onartu du. (Egunerokoa, 2020/11/24)

Klaseko jarduera ezberdinetan egindako eztabaidetan oinarrituta, gela kanpoan, espazioa ez da modu parekidean banatzen. Neska-mutilek ez dute elkarrekin jolasteko joerarik; eta elkarrekin jolasten badute, liderrak mutilak **dira joko “maskulinoetara” jolasten dutelako, futbolera hain zuzen. Hortaz,** Monasterio, **González eta García** (2001) defendatzen duten moduan, mutilek gelatik kanpo duten boterea argi geratzen da espazioaren zati handi bat beraiek erabiltzen dutelako eta aldi berean, ikastetxeak **joko “maskulino” zein “femeninoei” emandako garrantzia azaleratzen da.**

Honetaz gain, badaude ikasle batzuk arreta deitu nahi dutenak, eta horretarako, jarrera eta jokabide boikotatzaileak izan dituzte gelan.

Gela batean ikasle bat kanporatu behar izan dut bere jarreragatik. Gero, berarekin hitz egiten egon naiz eta berriro sartu da. Ez du ezer egin nahi, baina gutxienez jarduera aurrera eramaten uzteko eskatu diot. Hau da, parte hartu ez badu nahi ondo, baina besteak parte hartzen utzi behar ditu. (Egunerokoa, 2020/11/23)

Jarrera desegoki hau, batez ere, gela batean eman da non lehenengo egunean izugarritzko errespetu faltak egon diren. Dena den, neska-mutilek honen jakitun izan direnean tutorearekin hitz egin dute eta jarrera aldaketa bat egon da. Gainera, gelako tutoreek saioen jarraipena egin dute.

Tutoretza saioan, aurreko egunean izandako saioen inguruan hitz egiten egon gara. Ikasleek esan didate, beraien jarrera ez dela ona izan eta datorren saioetan, jarrera aldatzera konprometitu dira. Esango didazu ea nola joan den.

Ondo segi,

5B mailako ikasleak eta tutorea. (E-mail, 2020/11/26)

Ikusi ahal denez, eskolarekin etengabeko kontaktua egon da eta bai tutoreekin bai zuzendaritzarekin harreman estua sortu da. Eskolak askatasun osoa eman du nahi nuen proposamena aurrera eramateko eta eskertu egin du horrelako zerbitzuak ikastetxean egin nahi izateak.

7.3. Planifikazioa

Zerbitzu osoaren planifikazioari dagokionez, denbora aldetik saio bat baino gehiago motz geratu da. Hori dela eta, jardueretan aldaketa batzuk proposatu dira, ariketen helburua ez galtzeko.


Denbora aldetik motza geratu naiz, hortaz, siluetak talde txikietan egin ordez, denon artean egin ditugu. (Egunerokoa, 2020/11/23)

Izan ere, ikasleen errealitatearen eta kontzeptu edo ideia berrien arteko loturak egitea nagusitu da, hausnarketarako espazioak errespetatuz. Hori dela eta, jardueraren bat kendu egin da, aurrera eramandako jarduerak osotasunean landu egin ahal izateko.

Egunak aurrera joan ahala, ikasle-taldea gero eta gehiago ezagutzeko aukera izan dut eta honi esker, zerbitzuan egokitzapenak egin dira. 5. mailako umeei arreta mantentzea kostatzen zale, batez ere klase hasieran. Hori dela eta, hainbat saioetan planifikazioan agertzen ez diren aldaketak egon dira.

Adibidez, talde txikietan lan egitea edota ordenagailuen erabilera sustatu egin da. Modu honetan, ikasleen interesa piztea eta haien arreta lortzea errazagoa da eta gero, prestatutako jardueretan modu aktiboagoan parte hartzen dute.

Diseinu eta materialari dagokienez, idatzitako proposamenean aldaketa txiki batzuk egin dira, ahalik eta bisualen egiteko jarduerak. Horretarako, post-it, **kartulinak, bideoak... motako baliabideak erabili dira. Izan ere, aurrerago** sakonduko den faktore oztopotzailea hizkuntza izan da. Hori dela eta, ahalik eta bisualen egiteak ideien ulermena eta barneratzea erraztu egin du.



(AAA ikastetxea, 2020/11/24)

Honetaz gain, paperezko fitxetan egin beharreko azken ebaluazioa gela batean drive-n bidez egin da. Modu honetan, erantzunak oso azkar bidaltzen dira eta ikasleentzat ere motibagarriagoa da. Ondorioz, ebaluazio-errubriketatik etekin gehiago atera daiteke eta irakasleak zuzenean jasotzen ditu erantzunak.

7.4. Ikasleen erantzuna

Ikasleen artean genero berdintasuna eskolan landu egin dutela nabaritzen da. Izan ere, hasierako jardueretan modu teoriko batean nesken eta mutilen arteko desberdintasunik ez daudela defendatu egin dute. Hala ere, haien jokabide eta iritzietan eredu inplizitu ez-parekideak, estereotipo sexistak eta ezkutuko curriculumak helarazitako ideiak ikusten dira. Dena den, gaia aurretik jorratu izanak haien artean erantzutea eta eztabaidak sortzea ekarri du.

Ikasleen artean ideia estereotipatuak esaten dituztenean, kontraesaten dute. **“Ala, ez esan hori, hori matxista da” eta horrelako komentarioak entzun dira.** (Egunerokoa, 2020/11/24)

Gainera, aurrera eramandako saioetan ezagutzen ez zituzten gaiak ulertzeko edo aurretik zekiten kontzeptuei (sexu aniztasuna, sexu-orientazioa...) izena jartzeko aukera izan dute. Orokorrean, sexua eta sexualitatea klasean jorratzen ez den gai bat da eta hori dela eta, sexuaren inguruan interesa daukate.

Hau kontuan izanda, nahiz eta saioak jantokiko orduetan egin eta honek ikasleen jarreraren eta jokabidean eragin (askok bakarrik jolastu egin nahi zuten), parte hartzeko gogo handiz etorri dira eta haien jakinminak partekatu dituzte. Izan ere, behin baino gehiagotan saioa bukatzerakoan zalantzak galdetzera edo ideiak partekatzera etorri dira. Hau batez ere, sexu-identitatearen inguruan hitz egin eta gero gertatu da, batzuei binarismotik haratago joatea asko kostatu egin zaielako.

Bukatu eta gero, talde txiki batek sexu-identitatearen inguruan jakinmin handia izan dute, eta genital maskulino/femeninoekin jaio egin den pertsona bat zergatik beste sexuarekin identifikatuta senti daitekeen galdetu didate. Hau da, zergatik gertatzen den hori. Edo ez neska ez mutila sentitzea ere. Oso gustura egon gara horren inguruan hitz egiten. (Egunerokoa, 2020/12/04)

Are gehiago, ikuspegi interseksionala badugu, generoaz haratago joan gaitzke eta era horretan egon daitezkeen modu diskriminatzaile desberdinak eta pertsonen ahalmena eta eskubideak kentzen dizkieten mendekotasun-sistemak identifika ditzakegu (ALBOAN eta Cantera, 2018). Horretarako, errealitate eta talde guztiak agerian jarri behar dira, aniztasunaren berri emateko. Hau kontuan izanda, ikasleekin egindako azken jardueran lehenengo saiotik helarazitako ikuspegi interseksionala nabaritzen da.



(Murala, 2020/12/04)

Beste ildo batetik, haien esperientzia pertsonalak kontatzeko aukera izatea, **baita besteekin partekatzea ere asko gustatu zaie.** "Liburuxka morea" jardueraren bidez, ikasle guztiak entzunda sentitu dira eta haien errealitate hurbiletik abiatuta, patriarkatuak haiengan duen eragina ikusi dute. Are gehiago, bizi izandako esperientzia horiek kasu isolatuak ez direla konturatu dira eta beste kide batzuen kontakizunekin identifikatuta sentitzeko aukera izan dute.



(Liburuxka morearen dinamika, 2020/12/02)

Jarduera honekin hasieran zalantzak izan nituen, bizipen eta esperientzia pertsonalak besteekin partekatzea beharbada erasokorra eta ikasleen intimitatean gehiegi sartzea izan zitekeelako. Dena den, behin jarduera eginda lantzen diren gaiak ikasleen errealitatera hurbiltzeak ikaskuntza-prozesuan asko laguntzen duela ikusi da.

Yo un día vi al lado del cole infantil un chico que le estaba gritando a una chica y la gente les estaba mirando. La chica estaba asustada y le decía al chico que parara de gritar que la gente les estaba mirando pero el chico no le hizo caso y cerró la puerta con todas sus fuerzas. Yo me fui de ahí corriendo porque tenía miedo y no pude hacer nada por miedo y eso no me parece nada bien. (5.A mailako ikaslea, 2020/12/02)

7.5. Faktore oztopatzaileak

Alde batetik, faktore oztopatzaile nagusienetariko bat saioen ordutegia izan da. Hamar saioak jantokiko ordutegian aurrera eraman dira, 12:30-13:30ko tartean, hain zuzen ere. Ordutegi honek ikasleak nekatuta egotea suposatzen du eta askori arreta mantentzea eta dinamiketan modu aktiboan parte hartzea asko kostatzen zaie. Ondorioz, ikasle batzuen jarrera boikotatzailea izan da eta etengabe patiora joatea eskatu egin dute.

Gela batean ikasle bat kanporatu behar izan dut bere jarreragatik. Gero, berarekin hitz egiten egon naiz eta klaseak bukatu eta gero oso nekatuta dagoela esan dit eta jolastu nahi duela esan du. (Egunerokoa, 2020/11/23)


Bestetik, hizkuntza zailtasunak beste faktore oztopatzailetzat hartu behar da. Izan ere, jarduera guztiak euskaraz eginda eta euskaraz egiteko prestatuta zeuden, ikastetxeko euskara maila kontuan hartu gabe. Gela batean euskara ulertzen ez zuten hiru ume zeuden, eta orokorrean, ikasleen euskara maila nahiko baxua zen. Hori dela eta, nahiz eta euskara sustatu nahi, hainbat jarduera gaztelaniaz aurrera eraman dira, ikasle guztien partehartzea bermatzeko.

Jarduera guztiak euskaraz eginda daude, baina ez dut kontuan izan hizkuntza aniztasuna. Erdarara pasatu egin behar izan ditut jarduerak klase batean edo eginbeharrekoa itzultzen joan, ume batzuk ez dakitelako euskaraz. (Egunerokoa, 2020/12/09)

Horrez gain, bizi garen pandemia kontuan izanda, Covid-19ak ekarri dituen segurtasun-neurri guztiak betetzeak ikasleen arteko harremanetan eta ikaskuntza-prozesuan eragina izan du. Izan ere, ikasleen arteko kooperazioa sustatzea zaila izan da, talde handian batez ere (murala egiteko momentuan, adibidez) eta ondorioz, talde txikiak gutxi nahastu egin dira edo talde osoko dinamiketan segurtasuneko distantziak mantentzen direla ziurtatu behar izan da.

7.6. Ikasleen balorazioa

Bukatzeko, ikasleen balorazioa errubrika baten bidez jaso egin da. Orokorrean, eroso eta ondo sentitu direla aipatzen dute ikasleek eta oso identifikatuta ere. Jarduera hauetan ondo pasatzeaz gain, ideia berriak ikasi dituztela edo aldez aurretik zekiten inguruan gehiago sakondu dutela sentitzen dute. Hona hemen errubrikatik ateratako emaitzen grafikoa:



2. Irudia: Ikasleen errubrikatik ateratako erantzunak. Egileak egindakoa.

Saio hauetatik gehien baloratzen dutena esperientziak partekatzea da, haien kideen bizipenak entzuteko aukera izan dutelako, baita haien esperientzia propioak partekatzeko aukera ere. Saio hauek laburbiltzeko gehien errepikatu egin diren hitzak berdintasuna eta askatasuna izan dira, bakoitzak nahi duena egiteko eta izateko aukera duela defendatuz.

Si te gusta una niña y eres una niña da igual lo que piensen los demás de ti, si te gusta te gusta. (Ebaluazio errubrika. 2020/12/04)

Hau dena kontuan izanda, hezkidetzaren ikasleen interesa sustatzen duen gai bat dela esan daiteke, haien errealitateak hurbil dagoen gaia baita. Gainera, ikastetxeetan oraindik lana egin behar da txikitatik aniztasun, identitate edota orientazio sexuala bezalako gaiak tabuzat ez hartzeko.

8. Ondorioak

Gradu Amaierako Lan honi esker, inklusio gaiari gehiago sakontzeko aukera izan dut, hezkidetzaren, hain zuzen ere. Honek gai honetan ideia berriak ezagutzeaz gain, hezkidetzaren formakuntza eta hiztegi zehatza eskuratzea esan nahi du. Gaur egungo hezkuntza sisteman existitzen den gabezia bat identifikatzeko aukera izan dut, eta Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntzak gizarte patriarkal honen ideia sexistak bermatzen dituela ondorioztatu daiteke.

Alonsoren (2016) arabera, hezkidetzaren arloan asko hobetu behar da. Bere esanetan, berdintasunean bizi gaitela eta ikasleak modu hezkidetzaille batean hezteko gai gaitela uste den arren, ez da hala. Honako hau kultura oso barneratuta dugu bertan heziak izan gaitelako eta sarritan zaila egiten zaigulako ikasitakoa zalantzan jartzea. Hori dela eta, irakasleen formakuntza **ezinbestekoa da, Sánchez**-ek eta Bareak (2019) defendatzen duten ikuspegi sexista zalantzan jarriko duen irakasleen prestakuntzaren alde eginez, genero-binarismoa eta genero-rolen ikusmolde estatikoa hausten lagunduko diona.

Beste ildo batetik, nahiz eta aurretik ikaskuntza-zerbitzua zer den jakin, metodologia honen ikerketa sakona egiteko aukera izan dut, baina benetan ikaskuntza-prozesuan gehien lagundu egin duena zerbitzu bat martxan jartzea izan da. Metodologia honek komunitatean edo kasu honetan, ikastetxean nabaritzen den behar bati erantzuna emateko aukera eskaintzen du, genero desberdintasunarekin lotzen dena nire zerbitzuaren kasuan. Are gehiago, zerbitzua martxan jartzeak umeei dituzten ideiak eta ikastetxeetan generoa eta sexu-aniztasuna nola lantzen den ikusteko aukera eskaini du.

Are gehiago, Pilar Aramburuzabalak (2013) dioten moduan, ikaskuntza-zerbitzuak ikasleak bere ikaskuntza-prozesuaren protagonista bihurtzen du eta ikaskuntzari zentzua ematen dio. Zentzu hau lortu ahal izateko, irakasle

haien errealtate eta testuingurutik abiatu behar da; bestela ikaskuntza haientzat ez delako esanguratsua izango (Ausubel, 1983).

Hau lortu ahal izateko, irakasle eta ikaslearen arteko interakzioa ezinbestekoa da, konfiantzan oinarritutako harreman hurbilak eraikiz. Horretarako, zerbitzu honetan prestatutako saioetan ikasleen esperientziak eta bizipenak oso garrantzitsuak izan dira, identifikatuta sentitu ahal izateko eta haien bizipenetatik abiatuta gogoeta egin ahal izateko.

Hau kontuan izanda, zerbitzua aurrera eramandako ikastetxean egindako saio eta jarduera ezberdinetan neska eta mutilen arteko botere harremanak ikusi dira, bai haien arteko elkarrekintzan bai kontatutako bizipenetan. Hau **da, Amelia Barquínek (2008)** dioen moduan, patriarkatuak gizonen lehentasuna eta botere gehiago ematen dio eta proposatzen dituen **“maskulinitasunaren” eta “femeninitasunaren” ereduak umeei txikitatik** barneratzen dituzte eta haien arteko harremanetan errepikatzen dituzte, **egoera hau “normalizat” hartuz. Hori dela eta, hezkidetzaren hezkuntzaren** esparru guztietan egon behar duen edukitzat hartu behar da prozesu jarraitu gisa eta ez gertaera puntual gisa.

Laburbilduz, hezkidetzaren sexismorik gabeko eskolarako bidea dela defendatu behar da, eta, beraz, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuneko gizarterako bidea. Honetarako, euskal curriculumak parekidetasunaren aldeko eta hezkidetzaren oinarritutako hezkuntza sistema baten alde egiten du, baina ikastetxeetan oraindik androzentrismoa nabaritzen da. Hortaz, irakaslearen formakuntza, hezkuntzaren erabilera ez-sexista edota erabiltzen diren materialen birplanteatzea beharrezkoak dira ikastetxeetan hezkuntza parekide bat lortu ahal izateko.

Honetaz gain, Gradu Amaierako Lan honen bidez ikasleekin landutako gaiak (generoa, sexu-aniztasuna, sexu-orientazioa eta identitatea...) **ikasleentzako** ezezagunak direla ikusi da. Hau da, sexualitatea eta aniztasun sexuala ez da ikusgai egiten. Ondorioz, aniztasuna elementu aberasgarritzat hartu ordez, elementu arrotzat hartzen da eta hemen sortzen da diskriminazioa.

Are gehiago, hezkidetzaren eta ikaskuntza-zerbitzuen inguruan jakintza handiak eskuratu izan arren, zerbitzuko plangintzan kontuan hartu gabeko

elementu bat aipatu beharra dago, hizkuntza. Izan ere, hizkuntza aniztasuna kontuan ez hartzea euskara ulertzen ez duten edo euskararekin zailtasunak dituzten umeentzat baztertzaila izan daiteke. Hau kontuan izanda, edozein ikastetxetan hizkuntza aniztasuna errespetatu egin behar da, elementu aberasgarritzat hartuz. Hori dela eta, ikasgelako ama hizkuntzak aintzat hartu behar dira, ikasleen identitatearen parte baitira (Maalouf, 1999).

Hau kontuan izanda, hobekuntza proposamen bezala, alde batetik saioetan aurrera eramandako jardueren denboralizazioa izango litzateke. Izan ere, ordu bateko saioak izanda, hausnarketarako aukera eskaintzen duten jarduerak egitea komenigarriagoa da, baina ezin dira hainbeste jarduera txiki ordu batean sartu. Horretarako, hobe da zerbitzu osoaren plangintzan saio bat gehitzea, proposaturiko jarduera guztiak aurrera eraman ahal izateko. Beste aldetik, hizkuntzarekin zailtasunak ez izateko, eta materiala prestatuta izateko, hasi aurretik tutoreekin egindako bileran hizkuntzen, behar berezien etab. inguruan galdetzea komenigarria izango litzateke, saioak geletako ikasleen beharretara egokitzeko.

Bukatzeko, lan honetatik irakasle moduan, nire helburu garrantzitsuenetariko bat eskola eta gela ingurune segurua izaten lortzea dela ikasi dut. Modu honetan, ikasle guztiek dute izateko, sentitzeko eta nahi duten bezala adierazteko askatasuna. Izan ere, giro hori lortuz gero, norberaren identitatea errespetatu egingo da, bakoitzaren sexua, jatorria, beharrak, kultura etab. kontuan hartu gabe. Hau da, errespetuan oinarritutako giroa lortuz gero, ikasleen baita irakaslearen autoestimua eta identitatea indartzea lortuko da, aldi berean identitate kolektiboa eraikiz. Dena den, honek esfortzua suposatzen du eta horretarako nire betebeharra etengabeko ikaskuntzan egotea da, hezi garen kulturak helarazi dizkigun ideiak oso barneratuta ditudalako eta honek deseraikitze eta hausnarketa prozesu bat eskatzen du.

9. Bibliografia

236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea. Eusko Jaurlaritzaren weborria: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/inn_heziberri_dec_c_urriculares/es_def/adjuntos/EB_curriculo_completo.pdf.

ALBOAN eta Cantera (2018). *Hezkidetza, ikuspegi biozentriko batetik: Nerabe eta gazteekin erabiltzeko metodologiak hezitzaileei zuzenduta*. ALBOAN weborria: <https://www.edukalboan.org/eu/unitatea/hezkidetza-ikuspegi-biozentriko-batetik-nerabe-eta-gazteekin-erabiltzeko-metodologiak>

Alonso, A. (2016, irailaren 6a). *¿Qué es la coeducación? ¿Qué es coeducar?*: Alba Alonsoren bloga [Blog]. <https://www.realkiddys.com/coeducacion-en-la-vuelta-al-cole/>

Aramburuzabala, P. (2013). Aprendizaje-servicio: Una herramienta para educar desde y para la justicia social. *Revista Internacional de Educación para la Justicia Social* 2, 5-11.orr.

Ausubel, D. (1983). *Teoría del aprendizaje significativo. Fascículos de CEIF*, 1(1-10).

Barquín, A. (2015eko urtarrilaren 26a). *Escuela, género e interculturalidad. Escuela para la igualdad y el empoderamiento de las mujeres*. [Bideoa]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=B9X05n4wlyc>

Barquín, A. (2008). *Euskararen erabilera ez sexista*. Emakunde weborria: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/pub_guias/es_emakunde/adjuntos/eusk_gida_eu.pdf.

Blanco, N. (2007). Coeducar es educar para la libertad. *Andalucía educativa*, (64). 24-27 orr.

Cabello, I. (2009) Generoa Garapenerako Hezkuntzan. *Generoa Garapenerako Hezkuntzan. Estrategia politikoak eta metodologikoak*, 11. HEGOA

CME, **Campaña Mundial por la Educación (2009)**. *Begirada irekiz. Generoa Garapenerako Hezkuntzan*. EHU eta Hegoa

- Educo (2014). *Guía del uso igualitario del lenguaje*. Educo weborria: https://www.educo.org/Educo/media/Documentos/Gestión%20de%20la%20Calidad/politica_de_genero_ANEXO_2.pdf
- Echeita, G., eta Sandoval, M. (2002). Educación inclusiva o educación sin exclusiones. *Revista de educación*, 327, 31-48.
- EHU, (2019). *EHU agenda 2030. Garapen iraunkorrari ekin*. *EHUko weborria*: <https://www.ehu.es/documents/4736101/11938005/EHUAgen-2030-EUS.pdf/028a6f66-04d7-d5e5-8ee8-8bbe7d1db2cd?t=1558538098000>
- Emakunde (2012). *Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa*. Kirola. Emakundeko weborria: https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_evaluacion%20es_2/eu_def/adjuntos/Deportes_eu
- Eusko Jaurlaritza, (2019). *EAEko hezkuntza sistemarako II. Hezkidetza-Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023)*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritza, (2013). *Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Fernández, A. (2017). Reseña: Pandora Mirabilia: La coeducación en la escuela del siglo XXI. *ATLÁNTICAS*-Revista Internacional de Estudios Feministas, 2 (1), 316-322. doi: <http://dx.doi.org/10.17979/arief.2017.2.1.3076>**
- Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu ordezkari (2021). *Mujeres víctimas mortales por violencia de género en España a manos de sus parejas o exparejas*. https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/victimasMortales/fichaMujeres/pdf/VMortales_04_01_2021.pdf
- Hernández C., Larrauri, J. eta Mendía, R. (2009). Ikasketa eta zerbitzu solidarioa eta oinarritzko gaitasunak garatzea**. Zerbikas Gida, 2. Zerbikas Fundazioa

- IBE-UNESCO (2016) *Training Tools for Curriculum Development. Reaching out to all learners: a Resource Pack for Supporting Inclusive Education*. IBE-UNESCO.
- López-Vélez, A.L.** (2018). *La escuela inclusiva: El derecho a la equidad y la excelencia educativa*. **Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea**, Argitalpen Zerbitzua/Servicio Editorial.
- Maalouf, A. (1999). *Identidades asesinas*. Alianza Editorial.
- Manzano, I. R. (2019). Agenda 2030 e igualdad. *Política exterior*, 33(190), 84-91.
- Monasterio, **M.**, **González, S.**, eta **García, A.** (2011). *La coeducación en la Escuela del siglo XXI*. Catarata.
- Pallarès, M.** (2019). **Conquistar la igualdad: la coeducación hoy**. *Tendencias pedagógicas*, (34), 1-4.
- Puig, J. M., Batlle, R., Bosch, C., eta Palos, J. (2007). *Aprendizaje servicio. Educar para la ciudadanía*. Octaedro.
- Puig, **J.M.**, **Gijón, M.**, **Martín, X.** eta **Rubio, L.** (2011). **Aprendizaje-servicio y Educación para la Ciudadanía**. *Revista de educación*, (1), 45-67.
- Puig, **J.M.**; **Martín, X.** eta **Battle, R.** (2008). *Nola jarri abian ikasketa eta zerbitzu solidarioko proiektu bat*. Zerbikas Gida, 1. Zerbikas Fundazioa.
- Rebollo, M.A., **González, J.**, **Viadero, M.** eta **Saillard, M.** (2010). *Begirada irekiz: Kulturartekotasuna, herri indigenak, elikadura-burujabetza, bakerako hezkuntza*. Generoa garapenerako hezkuntzan. HEGOA eta ACSUR.
- Rodríguez, G.** eta **Alonso, A.** (2018ko martxoaren 4a). **La discriminación laboral más allá de la brecha de género y el techo de cristal con datos**. *El País*. https://elpais.com/politica/2018/03/02/actualidad/1519999246_882483.html
- Rubio, L. (2007). *Ikasketa eta zerbitzu solidarioaren sakelako gida*. Zerbikas Gida, 0. Zerbikas Fundazioa.

- Sánchez, B. eta Barea, Z. (2019). **Hacia una escuela violeta: la formación inicial del alumnado de educación primaria en coeducación.** *Tendencias pedagógicas*, (34), 76-92.
- Tapia, M.N. (2016). ***Inserción curricular del aprendizaje-servicio en la Educación Superior.*** CLAYSS.
- Ugarte, B. (2019). *Identitateak, harremanak eta bizikidetza. Hezkidetzarako II planaren markoan.* [PowerPoint diapositiva]. Emakundeko Weborria: https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/proyecto_nahiko_formacion/eu_def/adjuntos/2019.03.22.beatriz_ugarte.pdf
- Velasco, M., Vázquez, D. eta Ibáñez, M. (2009). ***El cambio lingüístico en la educación en los últimos 25 años.*** Ministerio de Igualdad, Instituto de la Mujer.
- Vigoya, M. V. (2016). **La interseccionalidad: una aproximación situada a la dominación.** *Debate feminista*, 52, 1-17.

10. Eranskinak

10.1. ERANSKINA: Familien baimen-gutuna

Familia agurgarriak:

Errespetua eta ekitatea oinarritzko balioz hartuz, 5. mailako ikasleentzat zuzendutako jarduera batzuk aurrera eramango dira jantokiko ordutegian azaroko hurrengo bi asteetan (azaroaren 16tik azaroaren 27ra arte). Ekintza hauek genero ikuspegitik pertsonen arteko errespetua sustatzeko prestatua egongo dira eta horretarako zuen baimena eskatzen da. Hortaz, ni _____ nire seme-alabari _____ hezkidetzat jarduera hauetan parte hartzeko baimena ematen diot.

Eskerrik asko,

Sinadura:

Estimadas familias,

Tomando como valor fundamental el respeto y la equidad, durante las dos **próximas semanas del mes de noviembre (del 16 de noviembre al 27 de noviembre)** se llevarán a cabo en horario del comedor unas actividades dirigidas al alumnado de 5º curso. Estas actividades estarán dirigidas a **fomentar el respeto entre las personas desde la perspectiva de género y para ello se solicita su autorización.**

Por tanto, yo _____ autorizo a mi hijo/a _____ a participar en estas actividades coeducativas.

Muchas gracias,

Firma:

10.2. ERANSKINA: Etiketak lantzen- Genero estereotipoak

Ezkerrera: F Eskuinera: M edo erdian geratu

Esaldiak:

Negartia naiz eta jendaurrean egin izan dut negar (F)

Erraz orientatzen naiz edozein lekutan (M)

Kolore arrosa gustuko dut (F)

Gustuko dut futbola eta/edo taldeko kirolak, oro har (M)

Bikotekidea dudanean, ez dut arazorik izaten harekin komunikatzeko eta nire sentimenduak adierazteko (F)

Eskuekin lan egitea gustatzen zait (M)

Niretzat erraza da leiala izatea (F)

Nire lagunekin ordu luzez telefonoz hitz egitea gustatzen zait (F)

Kontaktu fisikoa (besarkadak, musuak) oso garrantzitsua da harremanak izatean eta naturaltasunez egiten dut (F)

Ez naiz oso pertsona sentikorra (M)

Pertsona erromantikotzat dut neure burua (F)

Gorrito ditut komedia erromantikoak (M)

Oso gustuko dut erosketak egitera joatea (F)

Orduak ematen ditut atera aurretik zer jantzi erabakitzen (F)

Gehien gustatzen zaidana da egun osoa sofan igarotzea, telebista ikusiz eta bideo-jokoetan jolastuz (M)

Ispilu baten aurretik igarotzen naizen bakoitzean, ezin dut eragotzi neure buruari begiratzea (F)

Gorrito dut garbitzea (M)

10.3. ERANSKINA: Etiketak lantzen- Hausnarketarako momentua

Definizioak

(Definizio hauek dinamizatzailerak proposatuko dituenak izango dira; hala ere, ikasleek klasean ateratakoak ere kontuan hartuko dira.)

SEXUA: Normalean, gizakiak gizonetan eta emakumeetan bereizten dituzten ezaugarri biologikoak direla esaten da. Hala ere, sexu biologikoa ezin da bitarra izan, organismoa osatzeko elkartzen diren faktore askoren arabera da, hormonak, hormona-hartzaileak, sexu-organoak, kromosomak, barneko sexu-organoak eta bigarren mailako sexu-ezaugarriak (sinuak, gorputzeko ilea eta abar). Horrek guztiak ez du zertan bat etorri, orduan ez guke horietako bati bakarrik erreparatu behar. Horietako batean dagoen aldeak pertsonaren gorputza alda dezake, edo ez, baina ez luke gizarte-bazterketa edo talde batean sartzeko presioa eragin behar.

GENEROA: sexu-ezaugarrietatik abiatuta sortzen den eraikuntza sozial eta kulturala. Horren arabera erabakitzen da zer jarrera, itxaropen, rol, eginkizun, agindu sozial eta botere dagokion pertsonari, egotzi zaion sexuaren arabera eta gizontzat ala emakumetzat hartua den kontuan hartuta.

GENERO-ESTEREOTIPOAK: gizonezkoen eta emakumezkoen ezaugarriei, jarrerei eta jokaerei buruz inposatutako, sinplifikatutako, baina hertsiki onartutako hainbat ideari egiten diete erreferentzia. Esaldi honek zuzen **adierazten duen moduan: "Errepikatzearen poderioz, egia eztabaidaezinak sortzen dira". Estereotipoek pertsonak baldintzatzen dituzte, eta gerta liteke** askatasunez eta osotasunez garatzen ez uztea, edo are larriagoa dena, norbaitek bere jarrerarekin edo iritziekin estereotipoa zalantzan jartzean gainerakoek hori aurpegira botatzea, horregatik diskriminatzea edo bakartzea, eta hala egoera biolentoak sortzea, ez baitira norberaren askatasuna eta eskubideak errespetatzen.

Adibideak:

PERTSONA BATEK HONELA JOKATZEN DUENEAN:	NESKA DENEAN, HONELAKOA DELA ESATEN DA:	MUTILA DENEAN, HONELAKOA DELA ESATEN DA:
Aktibo	Urduria	Geldiezina
Temati	Egoskorra	Saiatua
Sentikor	Sentibera	Maribua
Lotsarik gabe	Lotsagabea	Bere buruaz segurua
Desinhibituta	Bihurria	Sinpatikoa
Esaneko	Otzana	Ahula
Jenioz	Histerikoa	Kartsua
Adoretsu	Oldartsua	Ausarta
Barnerakoi	Lotsatia	Gauzak ondo pentsatzen dituena
Jakin-minez	Galdeontzia, kuxkuxeroa	Buruargia
Zuhur	Zentzuduna	Koldarra
Partekatu gabe	Egoista	Berea defendatzen duena

1. Irudia: Jolas eta Ekin (2019). Genero estereotipoen adibideak. 11. orr

Jolas eta Ekin (2019). Genero eta indarkeriaren prebentzioa. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan lan egiteko 10 fitxa didaktikoak. <https://jolasetakin.org/es-materiales&page=0&limit=1&rpp=1&rel2=materiales>

10.4. ERANSKINA: *Nor da nor?*- “**E**l vestido nuevo”

Izen-abizenak:

Gela:

Data:

ZERK DEITU DIGU ARRETA?

	NORENA?	ZER?
ERREAKZIOAK/JARRERAK		
ESALDIAK		

BESTE ALDERDI BATZUK		
----------------------	--	--

10.5. ERANSKINA: *Nor da nor?-Kontzeptu batzuk ikasten*

TERMINOAK:

Sexu biologikoa: modu objektiboan ikus daitezkeen alderdi fisikoekin lotuta dago.

Genero-identitatea: pertsona batek generoa berak sentitzen duen bezala bizitzea da. Ez du zertan bat etorri behar sexu biologikoarekin.

Genero-adierazpena: norberak bere genero-identitatea adierazteko aukeratzen duen modua da. Hauen bitartez adierazten da: izena, janzkera, **jarrerak...**

Sexu-orientazioa: pertsona batek beste batekiko sentitzen duen erakarren fisikoa, emozionala, erotikoa, afektiboa eta espirituala da. Sozialki onartutako orientazioa heterosexuala da, hau da, norberarena ez den sexuarekiko sexu-erakarpina sentitzen duten pertsonen erreferentzia egiten diona. Jakin behar dugu eraikuntza eta elementu biologiko horiek guztiak elkar nahasten direla eta aldagai ugari sortzen dituztela banako identitateak eraikitzean. LGTBQ+ kolektiboa, ildo horretatik, dagoen sexu-dibertsitate guztia biltzen ahalegintzen da, aldarrikatu nahirik guztiak (izateko nahiz harremanak edukitzeko eta maitatzeko modu guztiak) direla libreak eta denek dituztela pertsona heterosexualen eskubide berberak.

LGTBIQ+:

L: Lesbianak: beren burua genero femeninoaren barruan identifikatzen duten eta beren sexu bereko pertsonenganako erakarpina sentitzen duten emakume homosexualen erreferentzia.

G: Gayak: genero maskulinoarekin identifikatuta dauden eta gizonezkoenganako erakarpina sentitzen duten gizonezko homosexualak daude jasota kolektibo honetan.

B: Bisexualak: termino horrek sexu bietako pertsonenganako erakarpina sentitzen duten gizonezkoak zein emakumezkoak biltzen ditu, beren genero femeninoarekin edo maskulinoarekin gatazkarik sortu gabe.

Ikusi ditugun 3 kategoria hauek sexu-orientazioaren kontzeptuarekin dute lotura, hau da, pertsona batek beste batetiko sentitzen duen erakarpn fisiko, erotiko eta emozionalarekin.

T: Trabestiak, transexualak eta transgeneroak: oro har, sexu biologikoak finkatzen dituen genero identitateetatik desberdintzen diren genero-identitateak biltzen ditu, **sexu-orientazioa albo batera utzita**. **Trabestiak** sozialki kontrako sexukotzat jotzen direnentzako arropa eta makillajea erabiltzen duten gizonezkoak dira; beren identitatea adierazteko egiten dute hori, sexu-orientazio jakin bat zehaztu gabe (heterosexualak, homosexualak **edo bisexualak izan daitezke**). **Transexualek ere beren sexu biologikoak** zehaztutakoaz bestelako generoa eraikitzen dute, baina kasu honetan, kontrako sexuranzko eraldaketa biologikoak lortu nahi izaten dituzte. Azken bi kategoriek gizonezkoei zein emakumezkoei egin diezaiekete erreferentzia. **Transgenero terminoa erabiltzen da beren sexu biologikoak ezarritako** generoarekin identifikatzen ez diren pertsonak deskribatzeko. Pertsona horiek genero berri bat eraikitzen dute beren estetika eta adierazpenak egokituz, horretarako aldaketa fisikorik egin gabe.

I: Intersexualak: gizonezkoen eta emakumezkoen arteko bereizketa bitarrean biltzen ez den sexuko pertsoneri egiten die erreferentzia. Kategoria horrek sexu biologikoari (organoei eta hormonei dagokiona) egiten dio erreferentzia, generoarekin lotuta (gizonezkoaren eta emakumezkoaren eraikuntza soziala).

Q: Queer-ak: aurrez deskribatutako kategorietan biltzea bilatzen ez duten sexu-identitate guztiei aplikatzen zaie Queer terminoa. Queer teoriaren arabera, genero-identitateak kategoria tradizionalak biltzen dutena baino zabalagoak dira, eta sexua eta generoa eraikuntzak direla jotzen dute. Horrez gain, banakoak kategoria unibertsal eta finkoetan sailkatzea baztertzen du.

Feminismoa: Feminismoa gizartean emakumeen eskubideak bultzatzea bilatzen duen ideia eta mugimendua da. Pentsamendu feministak emakumeak gizarteko maila guztietan (politikan, lan munduan, familian, etab.) duen egoera hobetu eta emakume eta gizonen arteko desparekotasunak desagertarazi nahi ditu.

Feminismoa, ordea, ez da bakarrik emakumeen mugimendua, hainbat gizonezko ere baitaude feminismoaren ideien alde. Gainera, emakume guztiak ez dira feministak; askok gizarteak tradizionalki ezarri dizkien rolak onartzen dituzte eta ez dute horretan inolako gauza okerrik edo bidegabekorik ikusten.

Kontuan izan beharra dago emakumeak gizonezkoen azpian edo gizonen mende egon direla historian, ia leku eta garai guztietan, eta oraindik egoera hori ez dela aldatu leku askotan eta gizartearen hainbat eta hainbat esparrutan, baita feminismoari esker emakumeen egoera asko hobetu duten gizarteetan ere.

Matxismoa: gizarte harremanetan gizonaren nagusikeria adierazten duten jarreraren multzoa da, aldi berean emakumeak gutxietsiz gehienetan.


Jolas eta Ekin (2019). Genero eta indarkeriaren prebentzioa. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan lan egiteko 10 fitxa didaktikoak. <https://jolasetakin.org/es-materiales&page=0&limit=1&rpp=1&rel2=materiales>

10.6. ERANSKINA: Ebaluazio fitxa

Izen-abizenak:

Gela:

Data:

			
Jardueran aktiboki parte hartu dudala sentitzen dut.			
Talde txikietan oso gustura sentitu naiz.			
Nire ideiak entzun direla eta errespetatu direla uste dut.			
Talde osoan oso gustura sentitu naiz.			
Besteak entzun ditut eta haien ideiak errespetatu ditut.			
Jarduera hauetan landutako ideiak beharrezkoak direla uste dut.			
Jarduera hauek hasi aurretik gai honen inguruan ez nekien ezer.			
Jarduera hauetan aurretik ez nekien informazioa ikasi dut.			
Jarduera hauetan landutako gaiak interesgarriak iruditu zaizkit.			
Jarduerak hasi aurretik baino hezkidetzaren inguruan gehiago dakidala uste dut.			
Zer ideia edo ondorio ateratzen dituzu egindako jarduera hauetatik?			

Nola sentitu zara saio hauetan? Eroso/deseroso? Identifikatuta egoeraren batean?
Nola ebaluatuko zenuke orokorrean egindako jarduera guztiak?

10.7. ERANSKINA: Ekintzen egutegia

Data / Denbora-tartea	Ekintza
2020-11-16/ 1h eta 30min 5.B gela	1. saioa: Sarrera+ Zerk definitzen gaitu?
2020-11-17/ 1h eta 30min 5.A gela	1. saioa: Sarrera+ Zerk definitzen gaitu?
2020-11-18/ 1h 5.B gela	2. saioa: Etiketak kentzen
2020-11-19/ 1h 5.A gela	2. saioa: Etiketak kentzen
2020-11-20/ 1h 5.A gela	3. saioa: Esperientzien liburuxka morea
2020-11-23/ 1h 5.B gela	3. saioa: Esperientzien liburuxka morea
2020-11-24/ 1h 5.A gela	4. saioa: Nor da nor?
2020-11-25/ 1h 5.B gela	4. saioa: Nor da nor?
2020-11-26/ 1h eta 30min 5.A gela	5. saioa: Murala+ itxiera
2020-11-27/ 1h eta 30min	5. saioa: Murala+itxiera

5.B gela	
----------	--